

GETARIAKO EMAKUMEEN MEMORIA HISTORIKOA
BERRESKURATZEKO GENERO IKUSPEGIDUN IKERKETA

ARO BERRIKO GETARIAKO EMAKUMEEN
ERREALITATEA ARTXIBOEN BIDEZ
(XVI.MENDEAREN AMAIERA ETA
XVII.MENDEA)

Osane Amiano Galdos

Getariako Udala

AURKIBIDEA

1.Sarrera eta emakumeak artxiboetan	3
2.Itsasoaren eta lurraren artean: Getariako bizitza ekonomiko eta soziala XVII.mendean	6
3.Komunitatearen oinarriak: egitura eta boterea	9
3.1. Familia: Etxea, lotura eta identitatea. ”	9
3.2. Ezkontza: afektua, interesak eta ohorea	10
3.3. Dotea, ezkontzaren arkitektura ekonomikoa.....	11
3.4. Nexka, emaztea eta alarguna neskazarra izatetik ihesean	12
4.Emakumeak legearen aurrean: mugak eta ahalmenak	16
5.Garaiko ideologia: “Diskurtso moralak eta generoaren kontrola”	20
6.Izena eta izana: emakumeen presentzia dokumentuetan”	24
6.1.Sarrera	24
6.2.Francisca de Lerchundi:	26
6.3.Inglesa Lopez de Zarautz	42
6.4.Catalyna de Eycaga	43
6.5.Maria Basurto.....	48
6.6.Ana Lopez de Segurola eta Ana de Zarautz.....	50
6.7.Emakumeak zensoak fundatzen	55
6.8.Tutoretzaren garrantzia	59
6.9.Dohaintzak	60
6.10.Dotea	63
6.11.Herentzia eta irabazpideko ondasunak.....	66
6.12.Familia arteko liskarrak.....	68
7.Ondorioak.....	72
8.Bibliografia	75
1.Lehen mailako iturriak	78

1. Sarrera eta emakumeak artxiobotan

Ikerketa honetan Getariako emakumeen bizitzetako hainbat pasartetan murgilduko gara. Honetarako lehen mailako iturriak izan dira oinarri. Batez ere Gipuzkoako Probintzia Historikoko artxiobotak erabili dira, baina baita Valladolideko Errege Kantzelaritzaren artxiobotak ere. Bilaketan artean hainbat kontzeptu ezberdin erabili dira, betiere XVI.mendearen amaieratik XVII.mendera arteko daten arteko emaitzei erreparatuz. Kontzeptu hauen artean, “*mujer*”, “*Getaria*”, “*viuda*”, “*bruja*”, “*curador*”, “*herencia*”, “*dote*”, “*casamiento*”, “*casa solar*”, “*tutoria*” edo “*censo*” gisakoak bilatu dira, emaitzak batzuetan ugariak izan direlarik eta bestetan aldiz, hutsalak. Emakume batzuek burututako dokumentu anitzek, haien kasu zehatza sakonago aztertzeke aukera ireki dute. Hala ere, ohikoa emakume bakoitzeko dokumentu bana aurkitzea izan da. Bestalde, aipatu, ikerketa honetan genero hitza erabiliko dela. “Genero” kontzeptua garai historiko eta gizarte bakoitzean sexuaren arabeko sozializazio-eredu desberdinak adierazten ditu. Honela, generoaren kontzeptua sexuarekin lotuta dagoen arren, ez du inoiz ordezkatzeko. Hortaz baieztatzeko iraganeko emakumeei, gaur egungoei bezala, rol sexual jakin batzuk esleitzen zitzaizkiela. (Armesto, 2022, 196).

Aro Berrian emakumei hitz egiterakoan kontuan hartu behar da ez dela talde homogeneo bat; izan ere, gizartearen barnean hierarkizazio sakon bat zegoen. Hierarkia honetan norberaren egoerak, familiak, jabetzek era orokorrean norberaren testuinguru pertsonalak, eragin zuzena zuten. Ondorioz emakumeak gizartea ardazten zuen hierarkian gorago eta beherago egoteko aukera zuten, indibiduo bakoitzaren errealitatearen arabera. Ondorioz, talde homogeneoaren hipotesiarekin apurtu egiten da. Hori dela eta, emakume aberatsek, txiroek, ilustratuek, hiritarrek, landatarrek, seme-alabarik gabekoek... arlo ezberdinetan jarduteko ahalmen ezberdina eduki zezaketen (Galdós, 2021, 68).

Bestalde, eta nahiz eta ulertu emakumeak ez zirela talde uniforme at, garrantzitsua da “emakumeen historia” azaleratzea. Orain arte, askotan, “historia” gisa definitu den horren azpian “gizonen historia” soilik mahai gaineratu baita. Baieztapen honen aurrean, azpimarratu nahi da, oraindik beste hainbat historiaren zati falta zaizkigu, “LGTBIQ+” kolektiboaren historia”, “baliabide gutxi zituztenen historia” eta orokorrean gizon zuriak protagonistak ez ziren eta interesatu ez zaien historiaren zati guztiak, honela soilik lortuko baita historia osatuago bat. Gerda Lernerren hitzak gogoratuz, «Gizonak eta emakumeak baztertuak eta diskriminatuak izan dira euren klase sozialaren arabera. Baina inoiz ez da

gizon bat historiaren erregistroetatik baztertua izan bere sexuagatik; emakume guztiak, ordea, bai». «Gizartearen sorkuntzaren parte funtsezko eta erdigunean daude; historiako aktore eta eragileak dira [baina] sistematikoki baztertuak izan dira sinbolo-sistemen, filosofiaren, zientzien, legeen [...] eta teoria orokorren eraikuntzatik». Harrigarria da nola ezabatu den urte luzetan zehar emakumeen errealitate eta izana Historia liburuetatik eta kontakizunetatik. Berriz ere Lernerren hitz hartuz «Emakumeek eta gizonak elkarlanean eraiki dute zibilizazioa, horregatik, ez da harritzekoa populazioaren erdia iturrietan agertzea. Ez da baliagarria salbuespenetara jotzea, izan daitezkeelako emakume batzuk bakarka nabarmendu direnak, baina emakumeek talde sozial gisa inoiz ez dute boterea izan». Bestalde, emakumeak diskriminatuak izateaz gain, zapalkuntza-egoera ere bizi izan dute. Izan ere, emakume izateagatik tratamendu kaltegarria jasotzeaz gain, emakumeari (talde zapalduari) gizartearen antolaketaren oinarria diren arau eta jokabide-ereduak inposatu zaizkio. Inposaketa hori ez da gizarte-harreman esfera bakar batera mugatzen; harreman sozialen esparru guztiak hartzen ditu barne (Armesto, 2022, 197).

Emakumearen menpekotasuna ez zen soilik maila intelektualera mugatu, baizik eta eragina eduki zuen maila praktikoan ere, eguneroko bizitza guztiz moldeatuz. Hala ere, ukaezina da, garaiko moral eta ohiturei men egin ez zieten emakumeak egon zirela, beren burua balioesteko hainbat mekanismo erabili zituztenak (Galdós, 2021, 70). Emakumeek, oro har, tradizionalki feminizatutzat jotzen diren lanak edo lan-antolakuntzako beheko lanak betetzen zituzten. Gehienetan botere-guneetatik kanpo geratzen ziren lanak edo irudimen kolektiboan boterearekin loturarik ez zuten lanak, gaur egungoei bezala, rol sexual jakin batzuk esleitzen zitzaizkielako. (Armesto, 2022, 196).

Historiografiari begirada orokor bat emanez, argi geratzen da mendeetan zehar emakumearen presentzia historiako diziplinan hutsala izan dela. Historia gizonen historia izan da, gizonen, gizonentzat egindakoa. Emakumeak historian progresiboki sartzen hasi ziren batez ere, generoaren ikuspegiak garrantzia hartu zuenean feminismoaren bigarren olatuarekin 1970 aldera. 1980ko hamarkadatik aurrera, emakumeen inguruko historiografia-ekoizpena asko hazi zen. Azken urteotan ikerketen eztearen atzean, feminismoaren olatu berriak egon dira; betiere kontuan hartu, honek eduki zuen eragina unibertsitate eta ikerketa zientifikoetan (Hala ere ez dira ahaztu behar Cristina de Pizan eta haren 1405eko “*La ciudad de las damas*” gisako aitzindariak (Armesto, 2022, 195; Correa eta Espigado, 2003, 21; Otero-González, 2019, 28).

Emakumearekin loturiko historiografian *heristory* gisako korronteak historia kulturalak, biktimistak eta konparatibistak gisako korronteak aipatu beharrekoak dira (Otero-González, 2019, 29; López-Cordón, 2015, 151-153). Hasiera batean emakumeak soilik arduratu ziren emakumeekin loturik dagoen Historia aztertzeaz; hala ere, monopolio hau hautsi egin zen gizonezkoak ere ordurarte gai periferikoak zirenak ikertzen hasi zirenean. Honela, emakumeak kontuan hartzen ez dituen ikerketa amaitu gabeko lantzat har daitezke gaurkoan (López-Cordón, 2015, 150).

2. Itsasoaren eta luraren artean: Getariako bizitza ekonomiko eta soziala XVII.mendean

Getariaren historia aztertzeko beharrezkoa da Getaria beraren testuingurua ulertzea. Historian zuzenean eragina duen elementua klima bera litzateke. Getaria, Euskal Herriaren iparraldean kokaturik dagoen heinen eta itsasoarekin duen muga kontuan hartuz klima ozeanikoa zuen Aro Berrian; hots, negu ez oso gogorrak eta uda freskoak. Hala ere, Getariaren klimaren aldetik ezaugarri garrantzitsua euria litzateke, klima bustia duen herria izanik, gune euritsua baita (Gonzales 2017, 272).

Demografia ere oso elementu garrantzitsua da garaiko gizartea, haren ohitura eta kezken zati bat ulertzeko. Getariaren kasuan, biztanleriaren hazkunde geldoaz hitz egin daiteke. Jaiotza-tasa handia bazen ere, heriotza-tasa ere handia zen, batez ere haurrengan. Haurren egoera dela eta, heriotza-tasaren %32,9 eta %44a soilik haurren heriotzena zen. Are gehiago, soilik haurren %65ak lortzen zuen 10 urte betetzera iristea. Laburtuz, populazioak poliki-poliki gora egiteko joera zuen. Gipuzkoan, XVI.mendean galera demografiko nabari bat egon zen, %12ko ingurukoa, batez ere 1630 eta 1640 urteen artean azpimarragarria dena; nahiz eta ostean, populazioak berriz gora egin, hazkunde egoerara itzuliz. XVIII.menderako Gipuzkoako bizi-esperantza 32,5 eta 35 urteen artean kokatzen zen. Alderaketa bat eginez, Monarkia Hispanikoak bizi esperantzaren bataz-bestekoa 27 urtekoa zen, alda nabari gisa kontsidera daitekeena, 6-8 urteren arteko desberdintasuna baitago (Gonzales 2017, 274-275).

Aro Berriko populazioaren inguruan ari garelarik, emigrazioaz hitz egitea beharrezkoa da, horrek ere eragin zuzena du jendearen eguneroko errealitatean. Honela, Erdi Aroan hasirik eta Aro Berrian jarraituz Gipuzkoatik ateratzen zen emigrazio nabaria egon zen.

Aro Berrian, batez ere Amerika, Andaluzia (Sevilla eta Cadiz) eta Madril izan ziren gipuzkoarren iritsiera gunek. Amerikaren “aurkikuntza” edo konkistatik, gipuzkoar ugari joan ziren bertara, marinel, militar, funtzionario, burokratiko, merkatarik edo bestelako lan baten bila, hau da, bizitza hobe baten bila. Mugimendu hauek lotura estua dute garai kolonialetako dinamikekin; batetik, hedapenarekin; bestetik, inperioaren sare administratibo, militar eta merkataritza sareetan txertatzearekin (Gonzales 2017, 276).

Lurralde-egitura dela eta, kontuan hartu behar da, Gipuzkoak Erdi Arotik jasotako lurralde-egitura mantendu zuela Aro Berrian, hiribilduen sorreran oinarritua. Hiribildu horiek foruak, hiri-gutunak eta errege-pribilegioak zituzten eta landa-inguruko beste herrixketatik bereizten ziren, dinamismo eta merkataritza handiagoa zutelako. Gainera, lurraldearen kontrol- eta antolamendu-zentro gisa jarduten zuten, inguruko landa-biztanleen gainean autoritatea ezartzen zen baita espazioa modu hierarkikoan antolatzen ere (Gonzales 2017, 279). Getaria hiribildu bat zela agerikoa da, bertan idatzitako dokumentu guztiek eta hari erreferentzia egiten dioten idatziek argi uzten dute. Garaiko artxiboetan Getaria kokatzeko eta definitzeko unean, “(...) *en la villa de guetaria* (...)” behin eta berriz errepikatzen den esaldia zen.

Gipuzkoak gaur egun gisara, aberastasun natural handia zuen. Alde batetik, ibaiek arratza egiteko aukera ematen zuen, izokina eta amuarraina tartean. Kostan, bestetik, bestelako espezie ugari eskaintzen zituen, antxoa, sardina, hegaluzea, bisigua eta izokina besteak beste. Foruek arrantza askatasuna aitortzen bazuten ere, Behe Erdi Arotik aurrera eliza-erakundeak, kontzejuak eta jauntxoak arrantza errentagarrienak kontrolatzeko saiakerak egiten hasi ziren. Hala ere, ukaezina da Getariak itsasoarekin eta honenbestez arrantzarekin eduki zuen eta duen lotura. Honek ere getariarren eta haien historiaren eragin handia edukiko du. Tartean emakumeen errealitateari erreparatuz, gizonak arrantzan egoteak, eta ondorioz etxetik urrun, emakumeen bizitzetan ondorio handiak ekarriko ditu (Gonzales 2017, 299-305)

XVI. mendean, gipuzkoar flotak Europako uretan arrantza egiten ziren eta Mediterraneoan zein Ipar Atlantikoan merkataritza aritzen ziren. Mende erditik aurrera, jarduera itsasoz bestaldeko arrantzara (Terranova) eta Andaluziarekin zein Amerikarekin egindako merkataritzara bideratu zen (Indietako Karrera). Urtaroen arabera lanen txandakatzea gauzatzen zen; udan, balea eta bakailao kanpainak egiten ziren; neguan, bisigua arrantzatzen zen bitartean (Gonzales 2017, 299-305).

Ezin daiteke pentsa Getariako portuan soilik herrikoak bertakoak ibiltzen zirenik. Kontuan hartu behar da ingurukoak ere bertan aritzen zirela, zarauztarren kasuan tartean. Zarautz aipatzerakoan bi ezaugarri hartu behar dira kontuan; alde batetik, Zarauzko inguruko baldintza geofisikoa (arrantza eta nabigazioa zailtzen zituelako); bestetik, bertako agintariek ezarritako monopolioa arrantzarekin loturiko baliabideekiko. Ondorioz, gatazkak ohiko bihurtu ziren eta zarauztar askok Getariako eta Orioko portuetara bideratu ziren, baita pixkanaka bale ehizan espezializatu ere. Hain zuzen, XVI. mendearen amaieran, urtero 80 zarauztar inguruk egiten zuten Terranovarako itsas bidaia baleen bila (Aragón, 2008, 201-202).

XVI. mendearen amaieran eta XVII.aren hasieran, bale-arrantzak une zailak bizi izan zituen: Koroaren gerrak eta Terranovan bale gutxiago egoteak arrantzaleak Artikorantz joatera behartu zituen, eta han Danimarka, Ingalaterra edo Herbehere bezalako potentziekin lehia gogorak izan zituzten. Getariako, Orioko eta Zarauzko arrantzaleek, esperientzia eta baliabideei esker, zailtasunak gainditu zituzten. Mende amaierarako, gipuzkoarrak ez ziren langileak soilik, baizik eta, kanpainak antolatzeaz arduratzen ziren, portuak errentan hartuz eta logistika osoa kudeatuz. XVIII.mendera arte, Getaria, Orio eta Zarautz, Pasaia eta Hondarribiko portuekin batera, itsasgizonak biltzeko gune nagusi bihurtu ziren. Hala ere, XVII. mendearen amaieratik aurrera, itsasoz bestaldeko arrantza gainbeheran sartu zen. Kapitala, proiektuak eta marinel gehienak arrantzara bideratu beharrean merkataritza kolonialera bideratzen hasi ziren (Aragón, 2008, 201-211). XVIII. mendean 1728an *Real Compañía Guipuzcoana de Caracas* sortu eta marinel askok arrantza utzi eta merkataritza kolonialean sartu ziren. Horrek arrantzarako eskulan gutxiago ekarri zuen, eta ondorioz, eskabetxe-industriak gainbehera egin zuen. Aldi berean, itsasgizonen kofradiek gero eta kontrol handiagoa hartu zuten, monopolio moduko praktikak burutuz (Gonzales 2017, 299-305).

1770 inguruan, Konpainiak pairatu zituen zailtasunak medio, arrantza indarberritu zen. Oraingoan, itsasoz bestaldeko arrantzak alde batera utzi, eta Bilboko portutik iparamerikar bakailaoa inportatzen hasi ziren. Gipuzkoako portuak kostaldeko arrantzan (antxo eta sardina) espezializatu ziren. Gainera, portuek harreman komertzialak mantentzen zituzten Kantauriko eta Bizkaiko Golko osoko beste herri batzuekin. Ez ziren soilik salgaien hartzailerak, baizik eta esportazio-gune ere. Adibidez, Getarian eta Zarautzen antxo eta sardina gazituak Mediterraneora esportatzen ziren. Prozesu hauetako protagonistak ez ziren soilik gizonezkoak izan, izan ere, emakumeak eta haurrak ere lan

handia egin zuten. XVII. mendean portuen arteko espezializazioa areagotu zen: Bilbo artile eta bakailao merkataritzaren gune nagusi bihurtu zen, eta Donostia, berriz, bale arrantzarako portu nagusi (Gonzales 2017, 299-305).

Laburbilduz, XVI. mendearen amaieratik XVII.aren hasierara, Gipuzkoako kostaldeko itsas jarduerarentzat garai oparoa izan zen. Testuinguru honetan espezializazio handiagoa izan zuten merkataritza eta arrantza jardueretan. Getariako inguruko herriei erreparatu, Zarautz arrantzan eta itsasontzi txikien eraikuntzan nabarmendu zen eta Orio, aldiz, bale arrantzarako portu garrantzitsu bihurtu zen. Getariaren kasuan, porturik onena izanik, merkataritzan eta arrantzan espezializatu zen (Aragón, 2008, 199).

3. Komunitatearen oinarriak: egitura eta boterea

3.1. Familia: Etxea, lotura eta identitatea. ”

Gipuzkoako gizarteak hainbat oinarri zituen. Garrantzitsuena etxea bera zen. Gainontzeko elementuek lotura estua baitzuten etxearekin, hauen artean, orubea, leinua eta auzoa genituzke. Lau sustengu hauek izan ziren norbanakoen bizitza egituratu eta moldatu zutenak. Etxearen baitan oekonomia gisa ezagutzen dena jorratzen zen; hau da, etxeak iraunaraztea eta handitzea helburu duen estrategia. Aro Berriko familiaren inguruan jarduten denean, familia zabal batez hitz egiten da, izan ere, familiako partaide guztiek ez zuten zertan odol berekoak izan behar. Garaian “familia” egun ulertzen duguna baino zabalago gisa ulertzen zen. Hain zuzen ere, ezaugarri horretan zetzan familiaren garrantziak, hots, haren zabaltasunean eta bere baitan ematen ziren hurbileko harremanetan. Familia zabal hauek leinua osatzen zuten. Aldi berean familia barruan hierarkia nabari bat egoten zen, jakina botere gehiena jaunarena izaten zen, etxeko gizonarena. Honela familiako partaide guztiak etxeak berak sortzen zituen hierarkian sarturik zeuden. Etxearen baitan ondare materiala eta ez materiala sartzen dira, ohorea tartean. Azpimarratu, etxeak eta familiak arlo publikoa eta pribatua elkartzen zituztela, erreprodukzio-, produkzio-, kontsumo-unitate eta unitate politikoa zirelarik. Garaian, familia eta taldea ziren norbanakoaren ardatz eta ez ordea indibiduo bera (Oliveri, 2006, 41-46).

Familiaren egituraketan ukaezina da generoak zuen eragina. Hala ere, familiaren barruan norberak edukiko zuen tokia definitzeko, beste hainbat elementu ere kontuan hartzen ziren. Tartean, jatorrizko etxearen prestigioak eta familia berrira eramandako

doteak. Ildo honetatik, generoen arteko harreman hierarkizatu eta asimetrikoak oinarri, emakumezkoek oztopo nabarmenak pairatzen zituzten arren, batez ere goi-nobleziako emakumeek beren dotea (ekonomikoa eta ohorezkoa) familiaren barruan aginte-tresna gisa erabili zuten. Hortaz, dote nabarmena zuten emakumeak erabateko menpekotasunetik urrun zeudela baieztatu daiteke, hierarkia eta erlazio asimetrikoak uko egin gabe (Echeberria, 2014, 44; Oliveri, 2006, 48).

Honela, emakumea izateak desabantaila argiak zituen arren, emakumea izateak ez zion pertsonari botere osoa kentzen, hierarkiaren barruan beste hainbat gizonen gainetik egon zitekeelarik. Testuinguru horretan etxekoandrearen figura azpimarragarri da. Etxekoandrea, emakumean izan eta haren senarraren menpe egon arren, etxeko gainontzeko indibiduen gainetik kokatzen zen, familia kideen aintzatespena eta haienganako autoritatea izan ohi zutelarik (Oliveri, 2006, 42-43). Izan ere, hierarkizazioan, ondasunen banaketak, ondasunen eskualdaketaren bidez edo herentziaren bidez gauzatzen zenak, eragin handia zuen (Azpiazu, 1995, 44-45).

3.2. Ezkontza: afektua, interesak eta ohorea

Familiaren baitan jauna zen agintaria, ildo beretik, aita zen agintari gorena. Ondorioz, seme-alabek obedientzia zor zioten, batez ere alabek. Aitaren eginbearra alabentzako ezkontza egokiena eta probetxuzkoena bilatu eta hautatzea zen. Gainera, ezkontza zen emakumeen bizitzetako eginbearrik garrantzitsua, oinordekoak uztearekin batera noski. Ezkontza bilatzearekin alabak klase baxuagoko bat hautatzea ekiditen zen, baita ahurdun geratzea ere ezkondu aurretik. Ezkontza ez zen maite ziren bi pertsonen arteko lotura, ospakizun edo zin bat; aldiz, gurasoek aliantza baten bila aldeztu aurretik planifikatzen zuten bi familien arteko kontratu ekonomiko, politiko eta soziala zen. Helburua gizartean gora egitea zen, baita ekonomikoki onurak eskuratzea ere. Ondorioz, ezkontzak bi familiei eskaini behar zizkion (Azpiazu, 1995, 147; Galdós, 2021, 70-71). Leinu desberdinetakoak ezkontzean ahalik eta abantaila ekonomiko-honorifikoa handienak eskuratzen saiatzen ziren (Echeberria, 2014, 36-37). Gerta zitekeen familietako batek tituluak eta prestigioa eskaintzea; bigarren familiak, aldiz, dirua eta jabetzak eskaini zitzaizkien. Honela lehenengo familiak aristokraziaren barnean sartzeko giltza eskuratzen zuen, bigarren familiak zorrak kitatzea lortzen zuen bitartean. Hitz gutxitan, alaba familiak erabiltzen zuen tresna

huts bat izan zitekeen, familia estrategiaren barruan estatusa eskuratzeko eta ondasunak mantentzeko edo ugaritzeko giltza. Kontuan eduki behar da truke hauek ez zirela soilik elitearen barruan ematen, gizarteko estratu guztietan gauzatzen ziren (Galdos, 2021, 70-71).

Ezkontzaren ildotik, Trentoko Kontzilioa aipatu behar da, bertan finkatu baitziren ezkontzaren ezaugarriak. Trentoko Kontzilioa Elizak, haren moralak eta estiloa inposatzeko pausu garrantzitsua izan zen, ezkontzari sakramentuaren izendapena eman baitzion. Honela, ordura arteko ohiturari gero eta leku gutxiago utzi zitzaion, ezkontza eliz ospakizunetan sartu eta jarraibide zurrunagoetara bideratu zen (Azpiazu, 1995, 166). Gainera, ezkontza sakramentu gisa definituz, erakunde banaezinaren printzipioa ezarri zen, ia ezinezkoa eginez ezkontzaren haustura (Rodríguez, 1996, 23).

3.3. Dotea, ezkontzaren arkitektura ekonomikoa

Dotea ez zen gauza bera familia guztietan. Normalean diruz osatzen zen, baita etxea hornitzeko objektuez ere (oheak, koltxoiak, maindireak, idazmahaiak, kutxak, armairuak...), eta batzuetan ukiezinak ziren elementuak ere sartzen ziren: harreman sareak, ahaidetasunak edo ospea adibidez. Ildo beretik eta familia bakoitzaren testuingurua desberdina izango zela aintzat hartuz, familia guztiek ez zuten aukera bera dotearen inguruan. Honela baliabiderik gabeko familiek ezin izaten zioten alabari doterik eskaini. Hori zela eta, gazte askok lanaren bidez lortu behar zuten dotea. Bestalde, lan egin behar izateak ezkontzeko adina berandutzen zuen, behintzat, dote familiatik eskuratzen zuten gazteen kasuekin alderatuz (Galdós, 2021, 72).

Kontuan hartu behar da, dotea prestigioarekin loturik egon arren, erabilera praktikoa bat zuela; hau da, sortu berri zen familiari hasierako oinarri ekonomikoa ematea. Aldi berean, ezkontzarekin haustekotan dotea emaztearen familiaren enborrera itzultzen zen, familia sortu berriak ez baitzuen haren betekizuna edo helburua bete, ondorengotza sortzea (Rodríguez, 1996, 28; Ortego, 2003, 104).

Dotearekin batera *donatio propter nuptias* buruz hitz egitea beharrezkoa da. Alaben hobekuntza, ohiturazko Gipuzkoako Zuzenbideak arautzen zuen. Gurasoek haien seme-alaben artean etxearen interesak defendatuko zituen hautatzen zuten. Honi *donatio propter nuptias* sistemaren eta dotearen bidez ondasunak ematen zitzaizkion eta askotan hobekuntza gisa ezaguna ere jasotzen zuen. Helburua herentzia eta dohaintzen bidez familia-ondasunak elkarrekin mantentzea zen, seme-alaben artean banatzerakoan jabetzak sakabanatzea ekidinez (Ayerbe, 2011, 430-431; Echeberria, 2014, 36).

Hala eta guztiz ere, ohitura horrek Gaztelako legeen kontra egiten zuen, zehazki Madrileko Gorteen 1534an Carlos I.ak eta Juana I.ak ateratako Erret legearen kontra (“*pragmatika*” gisa ezaguna). Izan ere, legeak emakumeek dote bidez jaso zezakeena mugatzen zuen, hobekuntza edo gehigarri ekonomikoa, herena eta bostena deituriko bideak debekatuz (Ayerbe, 2011, 430-431). Gaztelako legeen eta Gipuzkoako praktikek elkarren kontra egiten zutenez, XVII. mendetik arazoak sortu ziren. Gaztelaren arabera, emakumeek itxuraz familiaren izena eta armak jasotzen zituztenean, hauek galdu egiten ziren familiaren ohorearekin batera. Pentsamendu honetatik abiatuta, ulertu behar da garaian ohorea gizonezkoekin lortzen zen kontzeptua zela eta ondorioaz emakume batek ezin zuela bere gain hartu familiaren ohorea. Gaztelar pentsamenduaren kontra, maiorazkoa emaztearen eskuetan uzten zenean, seme-alabei amaren abizena eta armarria hartzera behartzen zitzairen (Castrillo, 2020, 60).

3.4. Nexka, emaztea eta alarguna neskazarra izatetik ihesean

Emakumeen bizitzak hirutan bana daitezke, gizon baten baitan aldatzen zirelarik fasez: ezkongabea, ezkondua eta alarguna. Aldi bakoitzak ahalmen juridiko, politiko, sozial... propioak zituelarik (Ortego, 2003, 105). Hiru faseetan doteak zuen garrantzia, ezkontzeko beharrezkoa zen eta helburua familiaren jarraikortasuna bermatzea zen. Behin seme-alabak edukirik emakumeak familiako hierarkian gora egin eta etxeko nukleoko beste partaideek baino garrantzia gehiago hartzen zuten emazteek, lanaren antolaketan eta ondarearen administrazioan parte hartuz besteak- beste. Emakume bat seme-alabarik gabe alargun geratu ezker askotan berriz ezkondu behar izaten zen, ondorengo bat ziurtatzeko eta arrazoi ekonomikoengatik (Aragón, 2014, 418).

Ezkondutakoan, emakumeek emaztearen rola bete behar zuten. Emazteei ez zitzaien soilik etxeko zereginak egitea egokitzen, emaztearen eginbeharra haratago zihoan, ezaugarri garrantzitsuenen artean senarraren menpe egotea aipa daiteke, eguneko ordu guztietan, urteko egun guztietan. Honela, edozein jarduera ekonomiko burutzeko senarraren baimena behar zuen emaztean. Baimen hau dokumentu idatzi bat zen “lizentzia maritala” gisa ezaguna zen agiri ofiziala zen. Errealitatea, aldiz, anitza zen. Tartean, Getaria gisako itsasertzeko herrietan, gizonak sarri joaten ziren bale ehizara edo orokorrean itsasora lan egitera. Gainera, kontuan hartuz itsasorako irteera hauek denbora luzekoak izaten zirela, sarri urteak igaroz, emakumeen ezin zuten zain geratu inolako ekintzarik burutu gabe. Askotan lurrian geratu ziren emakumeen hartu zituzten erabaki garrantzitsuak, adibidez familiaren ondasunen inguruan, salerosketen inguruan edo negozioen inguruan. Senarraren baimenaren faltan, bazegoen bigarren aukera bat, honi “lizentzia judiziala” deitzen zitzaion. Emaztea auzitegira jo ezkerro eta zenbait lekuko aurkeztuta (benetan noren emazte ziren frogatzeko), baimena lortu zezaketen. Horrela, senarrik gabe ere, emakumeek negozioak eta transakzioak egiteko gaitasuna izaten zuten (Galdós, 2021, 74).

Ezkontzan, emakumearen betebeharrak nagusietako bat “bizitza maritala” egitea zen. Horren arabera, senarrarekin etxe berean bizi behar zuela emazteak, harekin harreman sexualak izan behar zituela derrigor eta, jakina, seme-alabak eduki behar zituela. Garai hartan, ezkontzaren helburu nagusia ugalketa zen; hau da, seme-alabak eta ondorioz oinordeko bat uztea. Hala ez izatekotan, ezkontza bera kolokan geratzen zen, banantzerako edo dibortziorako arrazoirik ohikoena bihurtuz (Galdós, 2021, 75).

Alargundutako emakumeen bizitza asko alda zitekeen. Emakume hauek, haien egoera sozio-ekonomikoaren arabera, aukera desberdinak zituzten; azken finean, testuinguru desberdinetan bizi baitziren. Ondarea zuten emakumeek, gutxi gorabehera, bermatua zuten beraien eta seme-alaben ongizatea. Aldiz, baliabiderik gabeko alargunek, derrigortuta ikusten zuten euren burua lan bat aurkitzera (aurretik jada haien etxetik at lan egiten ez bazuten behintzat). Helburua hitz gutxitan bizirautea izango da; hori dela eta, lana bilatzeaz gain, bigarren ezkontza-kontratu bat bilatzea ere aukeretako bat zen. Ondarerik ez zuten alargunen bi aukerak gaizki ikusirik zeuden garaiko ikuspuntuaren arabera; aitzitik, emakume hauek berriz ezkontzea ere espero zen, berriz ere gizonezko

baten menpekotasunean egiteko. Aldiz, ondasun eta baliabide nahiko zituen emakumeak berriz ez ezkontzeko askatasuna zuten (betiere ondorengoak eduki ezker). Ondorioz, baliabide ekonomiko nahikoak bazituzten, ez zuten berriro ezkondu nahi izaten. Hala ere, itxurak gorde behar zituzten, eta ezin zuten harreman bat publikoki eduki (Galdós, 2021, 78). Teorian, alargunak estatus soziala galtzearekin batera, ikusezin eta pobre bihurtzen zen. Zentsuetan umezurtz eta pobreen antzekoa zen, senarraren heriotzarekin teoriarik sarrerak galtzen baitzituen. Hala ere, praktika eta eguneroko errealitatea bestelakoa izan zitekeen. Emakumeak alarguntzerakoan garrantzia hartzen zuen, batez ere, lan-munduan. Dotearen erabateko jabe bihurtzen zen eta ekonomikoki libre zelarik, askotan senarra zenaren negozioarekin jarraitzen zuten, inguruan pertsonaia garrantzitsu bihurtuz (Azpiazu, 1995, 44).

Erligio-itunek, tartean Bibliak, berriz ezkontzen ez zen alargunaren irudia goresen zuten, jatorrizko garbitasun edo purutasun egoerara itzultzen zirela argudiatuz. Alargunaren eginbeharra zen hildako senarra errespetatzeko dolua egitea, arropa beltzak jantzi eta harreman sozial minimoak edukiz (Nausia, 2024, 26-28; Roquero, 2019, 254-255). Itxurakeriak itxurakeri, datuek ez dute bat egiten ezkontza barrukoak soilik ziren harremanekin, izan ere, Euskal Herrian ezkontzaz kanpoko jaiotzak eta ezkontza aurreko haurdunaldiak oso ugariak ziren. Konparaketa bat egitearren, XVIII. mendeko Euskal Herrian %25era iristen ziren ezkontzaz kanpoko jaiotzak; aldiz, Frantzian, datua %2 ingurukoa da (Alkorta, 2024, 22).

Erraz antzematen dira moralisten diskurtsuetako kontraesanak, izan ere, alargunek dolua eta erretiroko bizitza bat bizi behar zuten bitartean, seme-alabak eta beren burua bera aurrera atera behar zituzten beren lan indarrarekin askotan, hots, ezinezkoa litzateke bi betebeharrak kontrajarriak betetzea (Roquero, 2019, 255).

Garai hartako tratadista modernoek Erdi Aroko misoginiaren zati bat baztertu bazuten ere, emakumearen inguruko ikuspegi negatiboa sakon errotuta jarraitzen zuen. Moja komentuaren hormen babespean zegoen tentazioetatik urrun, neskatila gurasoen zaintzapean bizi zen eta emaztea senarraren menpe; baina alargunak askatasun erlatibo bat zuen, horregatik beharrezkotzat jotzen zen haren jokabidea zaintzea. Kezka horretatik sortu zen “alargun erretiratua”; hau da, senarraren heriotzarekin batera, alarguna munduarekiko erretiratzea iradokitzen du. Bere bizitza etxearen barnean garatu behar zen, senarraren oroitzapenari dolua eta otoitza eskainiz, eta mezara joateko soilik ateraz etxetik. Hala eta guztiz ere, ikuspegi horren kontrapuntu gisa, “alargun alaiaren” irudia

zabaldu zen: askatasun berria ospatu eta hartaz gozatzen zuen emakumearena. Hitz gutxitan, moralki susmagarritzat jotzen zen emakumearen irudia. Alargun hauen familia kideei iradokitzen zitzaien harentzat senar berri bat bilatzea, ohorea bere kabuz gordetzeko indar nahikorik ez baitzeukaten. Bigarren ezkontzek sortzen zuten kezka moral eta soziala medio, Europako monarkia askotan arau eta lege ugari promulgatu ziren, emakume alargunen portaera sozial eta morala kontrolatzeko helburuarekin (Nausia, 2006, 246- 247).

Bigarren ezkontzatik eta alarguntasunetik at, bazen oraindik eskemetatik kanporago geratzen zen emakumeen bizitzetako fase posible bat. Fase honi edo emakume hauek *neskarraz* gisa ezagutzen zaie, hauek ezkondu ez ziren emakumeak izanik, ez zuten inolako laguntza ekonomikorik, ezta babesik ere; legearen aurrean adin txikitasunean geratzen ziren. Gainera, etxearen barruan zeregin zehatzik gabe geratzen ziren; bestalde dirua ez zeukatenez, ezkontzeko edo komentuan sartzeko aukerak ere ez zituzten. Haien zeregina gurasoak edo ilobak zaintzea izan ohi zen, familiaren egituratik at beti ere, ezkutuan, lan gogorren truke janaria soilik eskuratuz. Errezeloz begiratuak izaten ziren eta zama gisa kontsideratuak (Roquero, 2019, 258). *Neskazarrek* zituzten aukera murrizten artean serora izatearena aipatu daiteke. Serorak laiko eta erlijiosoen arteko maila batean zeuden emakumeak ziren, alargunen moduan, moralki bizitza garbia eduki behar zuten. Tartean, gizartetik urrun eta isolaturik bizi behar izaten zuten, ermitetan kasu. Derrigorrezkoa zen 40 urtetik gorakoak izatea (honela ezkontza eta ugaltzeko bideak jada itxirik zeudela ziurtatzen zen), elizkoiak izatea eta nola ez ezkondu-gabeak edo alargunak. Ezaugarri eta betekizun guztiak zorrozki bete arren, serorak maiz kritikatuak izan ziren, tartean Pierre Lancrek sorginen artean arriskutsuenentzat jotzen zituen. Gainera, seroren eta sakristauen arteko lanak gogor bereizi ziren; izan ere, herritarrek “sakristana” gisa ere izendatzen zituzten, batez ere objektu sakratuak ukitzeak eta eskura izateak mesfidantza sortzen baitzuten. Serorak XVIII. mendera arte aritu ziren, harik eta 1750tik aurrera sakristauak ordezkatu zituzten arte. Azpimarragarria da serorek Euskal Herriko gizartean, Elizaren edo kristautasunaren barruan eduki zuten garrantzia (Azpaizu, 1995, 305-306; Larrañaga, 2016, 43 eta 136; Roquero, 2015, 320-321).

Eliza munduarekin erlazionaturik, alargunen boterearen beste oinarrietako bat Elizan antzeman daiteke. Elizaren barruan familia bakoitzak zuen tokia prestigioa irabazteko erabiltzen zen, eta alderantziz, familia bakoitzaren prestigioa Elizan erakusten zen. Euskal emakumea familiaren benetako ordezkaria izan zen erlijio-erritu guztietan, eta

honek aldi berean, boterea ematen zien. Senarra hilik ere, alargunak jarraitzen zuen leinuaren ohorea irudikatzen. Honela, emakumeek elizaren eta kultuaren egunerokotasunean beharrezko papera jokatu zuten; ezinezkoa da kultuan pentsatzea emakumearen ekarpenik gabe. Eraikin sakratuaren barruan zegoen hilobiaren zaintza emakumeen lana zen. Ondorioaz emakumeak hilobiratzeetaz arduratzen zirenean, leinu osoaren zaintzaz arduratzen ziren, hori baitzen hildakoak eta biziak biltzen zituen gunea (Azpiazu, 1995, 47-48 eta 277; Oliveri, 2006, 51).

4. Emakumeak legearen aurrean: mugak eta ahalmenak

Emakumeen inguruan zeuden aurreiritziak, batez ere haren gutxiagotasunaren ingurukoak, eragin zuzena eduki zuten legegintzan. Adibide nabarmena da tutoretza kontzeptuarena da; hots, Gaztelako Erreinuak Erromatar Zuzenbidetik berreskuratu zuena XIII.mendean. Izan ere, Aristotelesen filosofia eta eskolastikaren gorakadarekin zuzenbide erromatarrean gizonezkoaren alde egin zen. Honela *Partidak* izeneko lege-multzoan emakumeen kontrako iritzi eta joera nabarmena agerikoak dira 4. *Partidako* legeak baieztatzen duen moduan: «Bestalde, gizonaren egoera hobe da emakumearena baino gauza askotan eta hainbat modutan, gure liburu honetako tituluen legeetan argi eta garbi agertzen den bezala».

Emakume eta gizonen arteko desberdintasun hori berehala markatuko da jaiotzaren unean bertan. Desberdintasun hauek adibide sinpleenekin ondo ulertzen dira; pentsa dezagun sexu desberdineko bikiak jaiotzen direla, zalantza izanez gero, suposatuko da mutila jaio dela lehenengo, emakumea mutilaren aurretik jaiotzea ia ezinezkoa zela pentsatzen baitzen haien ideologia eta emakumeekiko mespretxua oinarri. Aldiz, *premorencia*-ren (aurretiazko heriotzaren) kasuan, senar-emazte bat ontzi batean bidaiatzen ariko balitz eta ontzia ondoratu, ondorioztatuko da emakumea hil dela lehenik, emakumea izatez ahula baita.

Partidaketan emakumeen inguruan zegoen ikuspegiarekin bat eginez, emakumeen psikeari eta jokabideari buruzko aurreiritziak jaso ziren: «emakumeak izaeraz diruzale eta zekenak baitira». Horrela, emakumearen *infirmitas* (ahultasuna), *fragillitas* (hauskortasuna) edo *imbecillitas* (ezintasun intelektuala) ukaezinak ziren elementuak bihurtu ziren. Hiru ezaugarri horiek erabili dira historikoki emakumeak

gizonezkoaren azpitik kokatzeko; gizonaren menpe, *paterfamilias* baten boterepean, beti desabantailan (Armesto, 2022, 202).

Aro Berriaren hasierarekin, arlo juridiko eta familiarrean, ustezko emakumeen gaitasunaren urritasunaren inguruko diskurtsoa finkatu egin zen. Komunitatea, etxean oinarritzen zena, guztiz patriarkala zen. Antolaketaren muinean gizona zegoen botere guztien monopolioarekin, gobernu- eta aginte-funtzio gorenak zituen bakarra izanik, familiako gainontzeko kideak menpeko posizioetan uzten zituen. Aitak eta senarrak zuen azken hitza, eta legearen bidez ezartzen zen emakumearen egitekoa, obedientzia-betebeharra zen, senarraren babespean zegoenaren justifikazioarekin. Era berean, *ius maritalis* delakoaren arabera, senarrari aitortzen zitzaion seme-alabak “zuzentzeko” eskubidea (*patria potestas*) eta baita emaztea zigortzeko eskubidea ere, *ius correctionis* izenez ezaguna, eta horren bidez emakumeak *in loco filiae* (alaba baten tokian) kokatzen ziren, Erromatar Zuzenbidearen antzera.

Zigor fisikoei dagokienez, XVII. mendeko juristek “moderazioaren” alde egin zuten; hau da, juristek, tratu txar larriak gaitzetsi zituzten. Tartean koka daitezke makilen bidez edo soken bidez burututako tratu txarrak. Bereziki, tortura tresnen kontra, odol isuri handiak eragitearen kontra edo aurpegian eta buruan burututako kolpeen kontra adierazi ziren (Armesto, 2022, 208-210). Ulertu beharra dago, tratu txarrak legearen barruan sartzen zirela, “*marital correction*” gisa ezagutzen denaren bidez haien zuzen ere. Honen arabera, indarkeria fisiko zein ahozkoa sozialki onartua egoteaz gain, legala ere bazen. Hala ere, senarraren tratu txarrak ohikoak eta larriegiak izatekotan emakumeek salatzeak aukera zuten, “zuzenketek” puntualak eta moderatuak izan behar baitzuten (Castrillo, 2020, 54-56). Hala ere, emakumezkoen “salbuespenezko gaiztakeriaren kasuetan”, neurritasuna ez zen araua, hala nola adulterioan. Tratu txarren baitan indarkeria fisikoa genuke, arma zuriekin, makilekin edo eskuekin gauzatua; bestetik, psikologikoa, tartean elurretan lurperatzea edo janik eta edaririk ez ematea. Emakumeek egoeraren berri emandakoan prozesu gehienak ohartarazpen hutsarekin amaitzen ziren. Bazeuden, hala ere, bestelako zigorrak ere, isunak, urte bateko edo biko erbestealdia agintzen eta Afrikara preso bidaltzea edo armadan derrigorrez zerbitzatzera kondenatzea tartean. Kasu oso gutxitan, heriotza zigorra (Reguera, 2013, 171-172).

Kontuan hartu behar da legalki aitaren heriotzak zuela komunitatean eragin zuzena, ez ordea amarenak. Izan ere, etxeko gobernua aitari zegokion eskumena zen; hau da,

berari zegokion ezkontzan eskuratutako ondasunen, bere ondasun propioen eta ezkontza-hitzarmenaren bidez eskuratutako arren administrazioa. Aldi berean, emazteak eramandako dotea kudeatzeaz arduratzen zen baita dote honen bidez eskuratutako ondasun edo fruitu berriak administratzeaz ere, izan ere, eskuratutako ondasun berri horiek ondasun komuntzat hartzen ziren; nahiz eta, emaztearen dotea medio eskuratutakoak izan (Armesto, 2022, 208-210).

Seme-alaben babes juridikoari dagokionez, emakumeek ez zuten aurretik aipatutako *patria potestada*, aitari baitzegokion. Ondorioz aita hiltzerakoan eta seme-alabak adin txikikoak izan bitartean gizonezkoa zen tutore edo kuradore baten ardurapean geratzen ziren haurrak. Alargunak tutore papera lortzeko bide ezberdinak zeuden; alde batetik, hildako senarrak hala adieraztea testamentuan; beste alde batetik, ahaidetasun lerroan tutore izateko gizonezko apropos bat ez egotea. Bigarren kasu honetan, epaileak alargunari eman ziezaion tutoretza; baina betiere tutore gisa, ez ama gisa. Hala izatekotan, tutoretzari zegozkion betekizun guztiak bete behar zituen amak. Adibidez, seme-alaben ondasunen inbentarioa egitea, kontuak eramatea eta adin-nagusitasunera heltzen zirenean seme-alabei beren ondasunak aitortzea, beste hainbat eginbeharrez gain. Aitzitik, alargunek eskuratutako tutoretza galdu nahi ezean, ezin zuten ez berriz ezkondu ezta ezkontzaz kanpoko harremanik eduki ere. Honela adierazten du *Las Partidasek*: «ezkondu bezain pronto, umezurtzak bere arduratik kendu behar dira, jakintsuek esan baitzuten emakumeak senar berria hainbeste maita lezakeela ezen seme-alaben ondasunak emateaz gain, haien heriotza bera ere onar dezakeela senar berriaren onurarako edo atseginerako». Amaren maitasuna izan ohi zen amek tutoretza eskuratzeko erabili zuten argudiaketa. Uste baitzen amaren maitasunak, interesik gabea zenak, tutore ideal bihurtzen zuela ama. Hala ere, egoera pertsonalek eta familiarrek, praktika baldintzatu zuten eta askotan emazteen senar berriek lehen senarraren seme-alaben tutoretza beregain hartzen zuten (Armesto, 2022, 208-210; Nausia, 2013, 28, 30).

Emakume ezkonduen jarduna guztiz mugatua izan zen ia XX.mendera arte. Hauen jarduna *Novisima Recopilacion*en berrezarri zen Toroko ordenamenduko (1505) hainbat legeren bidez; zehazki 55. legetik 61.legera arte emakume ezkonduen ahamenak mugatu ziren. 55.legeak orokorrean emakume ezkonduen jardun osoa mugatzen zuen, haren konplexutasuna zela eta, kasuan kasu interpretatu ohi zen legea, emakume eta familia bakoitzaren testuinguruari erreparatuz. Aldiz, 56.legeak ezkontza lizentzia edo lizentzia maritala ezartzen eta arautzen zuen. Lizentzia hau, ezinbestekoa bihurtu zen

emakumeentzat jarduera juridikoak burutu ahal izateko. Senarraren baimenik gabe legeak (57, 58 eta 59.legeak) bestelako mekanismoak mahai gainean jartzen zituzten, tartean senarraren ordezkari batek emazteari baimena ematea. Epaeak eman zezaketen baimena, ezin da ulertu emakumeei botere gehiago emateko tresna gisa; hots, ez zen senarraren kontra egiteko tresna gisa sortu. Aldiz, behar praktikoa oinarri sortu zen, gizonen nagusitasunak ez zezan huts egin. Senarraren absentsia (ohikoa baitzen, batez ere kostako herrietan, Getaria kasu) edo senarraren ezgaitasunean adibidez (Armesto, 2022, 208-210).

Ezkontza haustekotan, dotearen itzulketa dela eta, partidek ondasun mugikor eta mugiezinen artean bereizketa egiten zuten. Honela, ondasun mugikorren itzulketa urte bete arte luza zitekeen, aldiz, mugiezinen berehala egin beharrekoa zen. Hala ere, ezkontza bat haustea ez zen ohikoa. Bi aukera soilik zeuden honetarako. Alde batetik, ezkontidetako baten heriotza bera; bestetik, dibortzioa. Bigarren aukera honetarako eliz-epaiketa baten onarpena behar zen, ia ezinezkoa zena. Kasu oso zehatzetan eman ohi zen aukera hau, tartea senarra beste emakume batekin (etxean bertan edo kanpo) bizitza egiten aritzea, iraunkorra izan behar zuena, edo emazteak tratatu txarrak jasatea. Tratatu txarrak, aurretik aipatu moduan, benetan krudelak izan behar zuten elizak dibortzioa onartzeko, emazteak tratatu txarrak salatzean askotan oinarritzen zuten bat soilik helarazten baitzuten Elizak trukean. Dibortziorako hirugarren aukera emaztearen aldetik traizio kasu bat egotea zen, gizonezkoa izatean traizio egiten zuena emakumeak ezin zuten ezer egin, ezin zuten salatu, familiaren interes kontra joaten zelaren argudietarekin (Armesto, 2022, 210-218).

Ondorioz, ezkontza hausturak, heriotzagatik ez baziren, oso mugatuak ziren. Ezkontza haustekotan dotearen itzulketa ere ibilbide desberdinak eduki zitzaizkien. Emaztea hiltzerakoan seme-alabak adin-txikikoak baziren, senarrak mantentzen zuten dotea, betiere seme-alaben tutoretzat eta hezkuntzaz arduratzen bazen. Hala ere, kontuan hartu behar da ezin zuela dotea saldu. Aldiz, senarra hiltzekotan, emaztea doterik gabe gera zitekeen. Adibidez, izan zitekeen ama ez izatea tutorea (gizonezkoa izan behar baitzen) eta dotea seme-alaben biziraupenerako beharke litzatekeela argudiatuz, emazteari haren dotea kentzen zitzaion (Armesto, 2022, 210-218).

Ondorengotza legeak direla eta, Bizkaian eta Gipuzkoan, oinordeko unibertsala izendatzeko aukera zegoen, genero-mugarik gabe. Hala ere, 1485ean Errege Katolikoek

emandako Erret Zedularen bidez emakumeen eskubide hori zigortua izan zen, gizonen aldeko lehentasuna ezarri. Aitzitik, 1615ean Felipe III.ak emaniko Errege Aginduak bestelako irizpidea ekarri zuen: maiorazkoaren oinordetzan, lerro eta gradu hurbilagoko emakumeak lehenestea gomendatu zen, maiorazkotik urrun zeuden gizonezkoen kaltetan (Aragón, 201, 51). XVI. mendearen testuinguruan, Gaztelako zuzenbidearen eragin gero eta handiagoa eta hiritartzearen hazkundera zirela medio, hainbat gipuzkoarrek beraien auziak Gaztelako Zuzenbidearen arabera epaituak izatea eskatu zuten. Hala, arriskuan jarri zen Gipuzkoako gizarte egitura tradizionala eta emakumeen boterea eta rol soziala nabarmen murriztu zituen, Gaztelako Zuzenbideak emakumeak oinordeko gisa izendatzea debekatzen baitzuen (Ayerbe, 2022, 148; Millán de Silva, 2015, 222). Toroko Legeen arabera, gurasoen herentzia bost zatitan banatu behar zen. Zati horietatik lau, derrigorrez, oinordekoentzat gordetzen ziren; bosgarrena, berriz, gurasoek nahi zutenari eskaintzeko aukera zuten, zati hori “hobekuntza” gisa ezagutzen da. Honela, doteen bidez hobekuntzaz baliatzeko aukera sortu zen, oinordeko jakin baten egoera hobetuz eta familia-estrategiak indartuz. (Ortego, 2003, 104-105).

Gaztelako Zuzenbidearen eta Gipuzkoako ohituren arteko talka ez da soilik eskubide-arloko gatazka gisa ulertu behar, baizik eta testuinguru orokorrago batean kokatu behar da: euskal kulturak pixkanaka higadura gero eta handiagoa pairatu zuen, azkenean mendekotasun egoerara kondenatuz. Bestalde, nagusi ziren gizarte-talde minoritarioaren gaztelar kulturak protagonismo gero eta nabarmenagoa eskuratu zuen, botere-harremanetan bere nagusitasuna sendotuz (Madariaga, 2001, 204). XVI. mendearen amaierarako, Gipuzkoako Batzar Nagusiek ahalegin berezia egin zuten Zuzenbide Forala finkatzeko, eta, horren bidez, Erregearen oniritzia lortu nahi izan zuten, foruak erreinuko lege orokorraren gainetik kokatzeko eta lege-maila ofiziala eskuratzeko. Hala, XVI. mendetik aurrera argi antzematen dira bi zuzenbideen arteko gora-beherak eta tentsioak, batetik foru-ohituretan errotutako sistema juridikoaren eta, bestetik, Gaztelako zuzenbide orokorraren artean (Ayerbe, 2022, 148), Gaztelako zuzenbideak aurrera egin arren, oinordekoaren hautapen askea Aro Moderno osoan mantendu zen (Aragón, 2012, 33).

5. Garaiko ideologia: “Diskurtso moralak eta generoaren kontrola”

Europako kulturen emakumearekin guztiz loturik egon diren hainbat elementu ditugu, tartean emakume hauen eginbeharra, etxearekin eta familiarekin guztiz loturik zegoen;

bestetik, feminitatea ere emakumearekin zurrunki loturiko ezaugarria izan da. Halako elementuek, ideologia edo pentsamendutik eratorriak direnek eguneroko bizitzan eta emakumeen (zein gizonen) errealtatean berebiziko eragina eduki dute (eta dute oraindik ere) (Oliveri, 2006, 40). Ideologia eta legeak askotan bat datozena ulertuz, ez da harritzekoa biek maila degradatuan kokatzea emakumea, ohikoak izanik “ar osatugabea”, “umetoki ibiltaria” edo “jaunaren etxean modu iragankor batean igaroko den arrotza” gisako izendapenak (Azpiazu, 1995, 43). Orokorrean, XVI. mendean, sexu femeninoaren ahuleziaz hitz egiten zuten tratatu filosofikoez, moralek edo ordenamendu juridikoez. Tartean, jada aipatutako Alfonso X.aren partidak genituzke, emakumeen ahalmenak mugatzen zituztelarik (Fraile, 2004, 74). Aldi berean, Alfonso X.ak bere *Crónica General* lanean emakumeei buruz honela mintzatu zen: «*Confundimiento del hombre, bestia que nunca se harta, cuidado que no tiene fin, guerra que nunca queda, peligro del hombre que no teme en sí medida*» (Armesto, 2022, 201).

Aro Berriko pentsamendua ulertzeko idatziak ezinbesteko oinarri eta tresna dira. Ildo beretik, kontuan hartu behar da kristautasunak eragin mugaezina zuela bizitzako eta gizarteko arlo guztietan; izatez, erlijioaren eta politikaren arteko mugak ez ziren gaur bezain garbi marrazten. Heziketa liburuetan, sermoietan edo tratatuetan emakumeei eskainitako pedagogiak garrantzia berezia hartu zuen. Horren lekuko dira hainbat obra eta egile nabarmen: Don Juan Manuelen gogoetak, Don Álvaro de Lunaren aholkularitza liburuak, Rodríguez del Padrónen edota Diego Valeraren idazkiak, eta Francesc Eiximenisen *Libre de les dones*, Isabel Gaztelakoaren aginduz gaztelaniara itzulia eta Carlos I.aren aroan *Carro de las Donas* izenarekin argitaratua. Horiei gehitu behar zaizkie Enrique de Villenaren *Los doce trabajos de Hércules*, Diego de Valeraren *Tratado en defensa de virtuosas mugeres*, eta, batez ere, Fray Martín de Córdobaren ezagunenetako lana, *El jardín de las nobles doncellas*, emakume nobleen heziketa eta bertuteen inguruko gogoeta sakona eskaintzen duena (López-Cordón, 1994, 87).

XVI. mendean emakumeen heziketaren inguruko lan garrantzitsuenetarikoak idatzi ziren gaztelaniaz. Aipagarrienetako bat Joan Luis Vivesen ezagunena, *Instrucción de la mujer cristiana* izan zen. Aldi berean, Pedro de Luxánen *Coloquios matrimoniales*, Vicente de Mexíaren *Saludable instrucción del estado de matrimonio* eta Fray Luis de Leónen ospetsua, *La perfecta casada* aipatu behar dira. Hala ere, horiek ez ziren liburu bakarrak izan, zerrenda luzea baitzegoen eskuragarri, besteak beste, Juan de la Cerdaren *Libro intitulado vida política de todos los estados de mujeres*, Alonso de Andradaren

Libro de la guía e imitación de Nuestra Señora, edo Pérez de Moya eta Juan de Mora, hurrenez hurren *Varias historias de santas e ilustres mujeres* eta *Discursos morales* lanen egileak. Ez dira, hala ere, ahaztu behar Doña María de Guevararen *Desengaños de la Corte y mujeres valerosas*, emakume batek idatzitakoak (López-Cordón, 1994, 87-88).

Testuinguru horretan, argi geratzen da literatura eta tratatu hauek ez zirela soilik irakurgaiak. Gizartea bera arautzeko tresnak ziren, ordena soziala justifikatzeko eta bertute eredugarriak belaunaldiz belaunaldi transmititzeko baliabideak. Horrela, gizabanakoaren heziketa eta erreinuaren sendotasuna elkarri loturik agertzen ziren, idatzizko hitzak gizartearen arkitektura moral eta politikoaren parte bihurtuz (López-Cordón, 1994, 87-88). XVII. mendean, emakumeei zuzendutako moral katolikodun sermoi asko idatzi ziren. Liburu horietan ezkontutako emakume, birjina, alargun eta moja perfektuak irudikatzen ziren (Roquero, 2019, 23-24 eta 43).

Ideologia horren oinarrian indarkeria estruktural irmoa zegoen, emakumeen bizitza eta askatasuna baldintzatzen zituen. Emakumeek gizonezko bati men egin behar zioten derrigorrez, eta mendekotasun hori gizartearen egitura beraren parte zen. Indarkeria ez zen kasu isolatuetan agertzen, baizik eta ohitura eta jardunbide-sistema zabal batean txertatua zegoen. Klean zein etxe askotan, senarren autoritatea ez ezik, apaizen agintea ere emakumeen aurka gauzatzen zen, haien ahotsa eta erabakitze ahalmena sistematikoki isilaraziz (Azpiazu, 1995, 212-213). Moralistek senarrari eta aitari emakumezkoak jotzeko baimena ematen zieten bitartean, isiltasuna eta otzantasuna ziren indarkeria-egoerak saihesteko emakumeei ematen zizkieten bi aholkuak. Aitortza-eskuliburu eta moral-liburu gehienak bat zetozen senarren edo aiten zigorrekin. Honakoa zioen aurretik aipatutako Luis Vivesek: “Emakumeak ez du erantzungo, eta ez du haserre hitz egingo, zuhurtasunez eta atsedenez ez bada, bere suminak ez baitu inoiz haserre baretzen” (Roquero, 2019, 97). Hitz horiek ondo islatzen dute garaiko pentsamolde patriarkalaren izaera: emakumeak bere sufrimendua isildu eta bere emozioak kontrolpean edukitzera kondenatuta zeuden, gizarteak eta moralak ezarritako moldeekin bat etorritik.

Bestalde, garaiko tratatuetan emakumeen sexualitatea behin baino gehiagotan plazaratutako gaia izaten zen. Honela, tratadista espainiarren obsesio sakona zutela esan daiteke ezkondu gabeko emakumeen eta alargunen sexualitatea zaintzeko. Emakume hauek, ugaltzeko aukerarik ez zuten, desorekak sexualak izateko joera zutela uste zuten, eta joera hori nahi sexualarekin lotzen zuten. Portaera horiek, gainera, histeria izenez

ezagutzen zen ustezko gaixotasunarekin lotzen zen. Argi dago garaiko pentsamolde patriarkalak, medikuntza bera ere beregain hartu zuela, azken finean, emakumeen gorputza eta sexualitatea kontrol soziala mantentzeko erabili ziren (Nausia, 2006, 242-243).

Iritzi hauen aurrean nolako erreakzioak egon ziren jakitea, aldiz, ez da hain erraza, hala ere, Cristine de Pizan idazleak XIII. eta XV. mendeen artean zabaltzen hasi zen diskurtso misoginoen inguruan honakoa idatzi zuen, garaiko herritarren zati batek behintzat haren pentsamendua parteka zezakeelarik:

“Me preguntaba cuáles podían ser las razones que llevan a tantos hombres, clérigos y laicos, a vituperar a las mujeres, criticándolas bien de palabra bien en escritos y tratados. No es que sea cosa de un hombre o dos, ni siquiera se trata de ese Mateolo, que nunca gozará de consideración porque su opúsculo va más allá de la mofa, sino que no hay texto que no esté exento de misoginia. Al contrario, filósofos, poetas, moralistas, todos (y la lista sería demasiado larga) parecen hablar con la misma voz para llegar a la conclusión de que la mujer, mala por esencia y naturaleza, siempre se inclina al vicio” (Armesto, 2022, 199).

Esan moduan, katolikotasuna arlo publiko zein pribatuan zeuden, ondorioz, Antzinako Erregimenean, bekatuaren eta delituaren kontzeptuak estuki lotuak zeuden. Delituen larritasuna ez zen soilik legearen arabera neurtzen, baizik eta haien dimentsio moral eta erlijiosoaren arabera; aginte zibilak nahiz erlijiosoak helburu bera zeukaten, ongia eta gaizkia katolizismoaren printzipioen arabera definitua defendatzea. Jokabide ezkorren zuzenketari dagokionez, gizonen eta emakumeen artean zigor edo ondorio desberdinak ezarri zen. Gizonak beraiek burututako ekintzen arabera epaitzen ziren, baina emakumeen kasuan, haien portaerek gizartearen moral publikoan zuten eraginagatik ere egiten ziren erantzule. Elizak arreta berezia jarri zuen garaiko “bekatu publikoak” desagerrarazteko, hau da, gizartean eskandalua sortzen zuten portaerak saihesteko. Hala ere, maizago, termino horrek ezkontzatik kanpoko harremanei egiten zien erreferentzia, eta kasu horietan errua emakumeek zuten; ez ziren soilik haien bekatuaren erantzule, baizik ere, gizonak bekatua egitearen errudun eta eragiletzat hartzen ziren (de las Heras, 2014, 417).

Bekatu publiko horiei aurre egiteko, aginte zibila eta elizakoa elkarlanean aritzen ziren. Ondorio argi bat ekarri zuen honek, emakumeen gorputza eta autonomia

kontrolatzea, irizpide moral eta juridikoen bidez, gizarteak onartutako ordena eta “bide zuzena” bermatuz. Aldi berean, emakumea izaki txiki eta babesik gabe gisa antzematen zenez, familiako gizonen zaintza eta babesa behar zuten. Ondorioz, emakumeek ezin zituzten kartzela-zentroak zuzendu; kontrola, oro har, elizgizonen esku geratu zen (de las Heras, 2014, 424-425).

Alargunen kasuan, haien irudiak mesfidantza handia pizten zuen garaiko gizartean. Legegileek, moralistek eta eliz agintariek arreta berezia jarri zioten emakume talde honi. Askotan, gizonezko baten kontrolpetik kanpo egoteak gizonen kontrako mehatxu gisa ikusi eta ezinegona sortzen baitzuen. Garaiko pentsamoldearen arabera, gizonak ziren emakumeen ohorea eta zintzotasuna bermatzeko arduradunak, eta alargunen kasuan, ez zuten halako figurarik. Hortaz, legegileek emakume hauek egoera ahulean geratzen zirela kontuan hartu zuten; ondorioz, alargunaren irudiari hainbat abantaila esleitu zizkioten; horien artean, lan-arloari, prozesu judizialei eta ondorengotza-eskubideei lotutakoak nabarmentzen ziren, emakumeen babes eta duintasun soziala bermatzeko helburuarekin (Nausia, 2006, 233).

6. Izena eta izana: emakumeen presentzia dokumentuetan

6.1. Sarrera

Iruditeria kolektiboak iraganeko emakumea etxetik kanpo lanik egiten ez zuen norbait bezala aurkezten duen arren, dokumentazioak argi erakusten du emakumeek lan asko egin zutela, etxe barruan, baita etxetik at ere. Egia da, zenbaitetan, ez zituztela gizonen lan berberak egiten eta askotan baldintza ezberdinetan jarduten zutela, baina lan-munduan presente egon ziren. Gainera, ez zaie balorea kendu behar emakumeek egin zituzten lanei emakumeen lanak zirelako, eta ez zaie garrantzi gehiago eman behar “gizonezkoen lanei” tradizionalki lan gisa definituak izan diren bakarrak izan direlako. Besteak beste, emakumezkoek esleitzen zitzaizkien lan batzuk nabarmentzen dira, hala nola erditzean laguntzen zuten emaginena. Gainera, Aro Berrian erditzei buruzko hainbat eskuliburu argitaratu ziren —tartean Damián Carbón Malferiten *Libro del arte de las comadres, madrinas y del regimiento de las preñadas y paridas y de los niños* (1541)—, baina azpimarratzekoa da emaginak praktikan gehiago trebatu zirela, ez hainbeste teoriaren bidez. Honek erakusten du emakumeek euren jakintza eta trebetasunak praktika zuzenean eskuratzen zituztela, eta haien lana gizartean eta komunitatean funtsezkoa izan zela (Intxaustegi, 2024, 24-25).

Honela, garaiko pentsamenduak esaten zuenaren kontra eta legeek lortu nahi zutenaren kontra, praktikan egoera eta kasu anitzak bizitu ziren. Askotan, teoriaren eta praktikaren arteko alde nabarmena ikus daiteke. Honela, emakumeek hainbat eremutan jardun zuten, bereziki ondasunen kudeaketan. Emakume jabeak egon ziren, etxebizitzak, negozioak, ontziak, burdinolak, errota edo lur- eta ondasun higiezinak zituztenak. Ondasun horiek, haien propietate ziren aldetik eta emakumeak jabeak, kudeatu, defendatu eta zaindu zituzten. Ondasunetako bat mehatxupear zegoenean, ez zuten zalantzarik izan justiziara jotzeko, edo esku-hartze eta baliabide guztiak erabiliz beren ondasunak galtzea saihesteko ahaleginak egin zituzten (Galdós, 2012, 84). Emakumeek ez zuten soilik ondasun higigarri eta higiezinen gaineko agintea; izan ere, euren familien ohorearen zaintza ere bere gain hartu zuten behin baino gehiagotan. Emakume askok justiziara jotzen zuten, seme-alabaren bat iraindu edo kaltean jasan ezkerro, beti familiaren izena eta duintasuna babestu nahian. Ildo beretik eta ondorioz, kasu ugari erakusten dute emakumeek, garaiko egiturak eta mugak gorabehera, beren eskubideak eta familiaren ohorea defendatzeko gai izan zirela (Galdós, 2021, 85).

Euskal Herrian, testuinguru anitzak daude, hala ere, itsasoak eragin handia eduki zuen familia askotan. Honela, emakume batzuek paper garrantzitsua izan zuten itsas merkataritzan. Batez ere, ontzien jabe izateagatik, haien fletamenduan inbertitzeagatik edo zenbait produktu inportatzeko edo esportatzeko negozioak zuzenean kudeatzeagatik. Kasu batzuetan, ez dago argi emakume horiek ezkondata ala alargun ziren, baina alargunak izan ziren batez ere, jarduera horietan aritu zirenak. Zenbaitek atzeritarrekin egin zituzten negozioak, merkataritza egitera Euskal Herrira etorritakoekin, bitartekari lanetan arituz. Adibidez, 1520. urtean, Zumaiako bizilagun zen María de Argayanek dugu adibide (Castrillo, 2021, 304-306).

Bestalde, iturri historikoez baieztatzen dute emakumeak Euskal Herrian Erdi Aroaren amaieran burdinaren industriaren finantzaketan, itsas merkataritzaren sustapenean eta produktuen inportazio zein esportazioan jardun zutela. Emakumeen kopurua txikiagoa zen gizonezkoena baino, baina batez ere alargunek esku hartze aktiboa izan zuten negozioetan. Parte-hartzeko bide ezberdinak erabili zituzten emakume hauek, tartean, senarrekin batera aritzen ziren, beste batzuk bakarka, batez ere alargundu ondoren. Askotan beren sexurako babesa eskaintzen zuten legeei uko egiten zieten kontratuak sinatzeko. Gehienek ez zekiten idazten eta ez zuten bidaiarik egiten, baina horrek ez zien

parte-hartzea ekidin, gainera esan daiteke, emakumeen presentzia ohikoagoa izan zela iturrietan agertzen dena baino. Merkataritzan aritzen ziren emakumeek senide gizonezkoekin zuten harremana ezinbestekoa zen beren prestakuntzarako. Haien jarduera, neurri handi batean, familia, nortasun eta lege-faktoreen menpekoa zen. Nahiz eta legeek zenbait muga ezarri, emakumeek bazituzten hauek gainditzeko bideak, adibidez senarren baimen orokorrak edo lizentziak erabiliz. Sarri, emakumeek negozioak jarraitzen zituzten senarra hil ondoren, eta horrek erakusten du aurretik ere modu aktiboan parte hartzen zutela, bestela ezinezkoa izango baitzen negozioak martxan eta ongi jarraitzea gaiari buruz ezer jakin gabe. Era berean, ondarearen titulartasunak edo senarrak ondasunak erabiltzeko behar zuen baimenak eman izanak emakumeen esku-hartzea ahalbidetzen zuen. Azkenik, inguruko gizonezkoek ematen zuten konfiantzak eta emakumeen izaera zein gaitasunek ere baldintzatzen zuten haien jarduera komertziala (Castrillo, 2021, 208-311). Ondorioz, testuinguruaren arabera, emakume bakoitzak bizi zuen egoeraren arabera eta zituen lagun-sare edo konfiantza-sareen arabera egoera desberdinak egongo ziren, betiere ohoreak, errespetuak eta ohiturak garrantzia zuten aldi berean.

6.2.Francisca de Lerchundi:

XVII. mendeko Getariarekin loturiko artxiboetan murgiltzerakoan, herriko eguneroko bizitzaren xehetasunak eta bizitzaren pasarteak ageri zaizkigu. Izan ere, paper zahar horietan ez ditugu datu administratibo hutsak aurkitzen; aldiz, garaiko biztanleen ahots ahul baina etengabea entzun daiteke bertan. Seguruenik orain arte entzun ez diren pasarte eta bizipen hauetatik, historia berreskura daiteke, orriei hautsa kendu eta ezkutuan egon den historia azaleratuz. Izen propio batzuk behin eta berriz agertzen dira eta horien artean bada bat arreta berezia pizten duena: Francisca de Lerchundi. Haren inguruko aipamenek aukera ematen digute garaiko emakume baten presentzia eta rola hobeto irudikatzeko, baita Getaria eta Zarautz artean zuen lotura ezagutzeko ere. Francisca de Lerchundiren bizitza abiapuntu hartuz, XVI.mendearen amaieran eta XVII.mendearen hasieran bizitu zen emakumea izan zen, Getarian hain zuzen ere. Honakoa dio 1603ko otsailaren 13ko artxibo batek haren jatorriaren inguruan:

“ (...) yo doña Francisca de Lerchundi viuda del general Antonio de Urquiola difunto vezina de las villas de Guetaria y Çarauz (...)”¹”.

1603ko beste dokumentu batean² jasotako deskribapenak garaiazen testuingurura eramaten gaitu, Felipe III.aren erregealdi betean kokatuz “(...) el rey don felipe nuestro señor tercero de este nombre (...)”. Orri horietatik abiatzen da Lerchundiren bizitzara hurbiltzeko atea. Emakume honen eta Getariaren arteko lotura argia da, honakoa dio 1603ko dokumentuak: (...) vezina de las villas de guetaria y carauz la muy noble e muy leal provincia de guipuzkoa del reino de castilla (...)”.

Franciscaren izena jada 1573ko martxoaren 23ko dokumentu³ adierazgarri batean agertzen zaigu. Eskuz idatzitako dokumentu zahar honek, XVII. mendeko Gipuzkoan kokatua, Julián de Honsain eta Lerchundi ahizpak (Francisca eta María Juanes) elkartu zituen. Bestalde Julian genuke, Martín Ruiz de Honsain izeneko adingabearen ordezkari gisa eta Juan de Lerchundi fidatzaile gisa; Martín bere ama María Ochoa de Seguiolaren ondorengoa zen. Lerchundi ahizpak, berriz, Ana de Seguiolaren alabak ziren 1. irudian ikus daitekeen modura. Testuan zuzenean adierazten ez den arren seguruenik Maria Ochoa de Seguiola eta Ana de Seguiola ahizpak izango ziren. Izan ere, biek Seguiola abizena daramate, biek herentzia beraren gaineko eskubideak transmititzen dituzte eta dokumentuak arbaso komun berberekin lotzen ditu. Hala ere, testuak ez du hori espresuki adierazten, beraz ez da guztiz ziurtzat jo behar. Baliteke, adibidez, bata Blas Gonzálezen alaba zuzena izatea eta bestea biloba, edo Seguiola familiaren baitan beste ahaidetasun mota bat izatea.

Auzia Urragako etxea eta haren ondasunak nork jaso behar zituen erabakitzeari buruzkoa zen. Jatorria familia bereko arbasoetan zegoen, Blas González eta Maria⁴ (edo Magdalena) haren emaztea izandakoetan. Epaiaketak eta gatazkak saihesteko, aldeek akordio bat egin zuten. Honela, Juliánek, Martín Ruiz ordezkatzuz eta fidatzaileekin batera, diru kopuru bat eta altzariak ordaindu behar zizkien Lerchundi ahizpei; trukean,


¹ Archivo Histórico Provincial de Gipuzkoa-Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoa (AHPG-GPAH), NOT 2/3027, A:17r-18r

² AHPG-GPAH, NOT 2/3027, ff.:162v-164v

³ AHPG-GPAH 2/3000,ff:29trsr-30v

⁴ Testuan bere izena ez da ongi antzematen, bi hipotesi mantentzen dira: Maria edo Magdalena

ahizpek beren eskubide hereditarioak laga zizkioten Martín Ruizi. Horrez gain, hainbat berme juridiko, uko formal eta zin idatzi ziren akordioari balio osoa emateko.



1. Irudia. Ekintza ekonomikoaren eskema. Autoreak egina.

Testu honek garaiko emakumeen inguruko informazio ugari eskaintzen digu. Alde batetik, emakumeak oinordeko legitimo gisa agertzen dira. Francisca eta María Juanes de Lerchundi beren ama (Ana de Seguro) eta aiton-amonen oinordeko gisa azaltzen dira. Honek erakusten du emakumeek ere bazituztela ondasunak jaso, erreklamatu eta transmititzeko eskubideak, Penintsulako beste lurralde askotan gizonezkoei lehentasuna ematen zitzaien bitartean. Hala ere, ezkonduetako emakumeen muga juridikoak ere argi eta garbi geratzen dira. Testuak dioenez, eskubideen lagapena formalizatzeko, Maria Juanesek senarraren lizentzia maritala behar izan zuen. Horrek garaiko lege-araubidea erakusten du, izan ere, emakume ezkonduak gaitasun juridiko mugatua zuten, senarraren menpe zeudelako. Hirugarrenik, testuak emakumeen pisu sinbolikoaren eta sozialaren berri ere ematen digu. Kasu honetan, Urraga etxea da gatazkaren erdigunean dagoena; ezin zaio garrantzirik kendu etxe hori emakumezkoen lerroaren bidez iritsi izanari testuan aipatzen den uneraino (María Ochoa eta Ana de Seguroaren bidez). Hala ere, azken emaitza benetan adierazgarria da; izan ere, akordioaren bidez, ondarea adin txikiko gizonezko baten, Martín Ruizen, eskuetan kontzentratu zen. Hala ere, ezin da ukatu ondasun hori emakumezkoen bidez transmititu zela. Argi geratzen da negoziazioan egondako desoreka: Lerchundi ahizpek diru eta altzari trukean utzi behar izan zituzten beren eskubideak. Hortaz, nahiz eta legeak eta ohiturak emakumeak oinordeko izatea

onartu, praktikak anitzak ziren eta kasu honetan gertatutakoak eta botere-harremanek gizonen aldeko joera erakusten dute. Ondasun garrantzitsuenak gizonaren inguruan bildu ziren, emakumeak ordain ekonomiko batez konpentsatuz. Azken finean, testu honek familiaren arteko tentsio une bat islatzen du. Emakumeek oinordeko izateko eskubidea zuten, baina euren askatasun juridikoa eta ekonomikoa senarren, fidatzaileen eta notarioen esku geratzen zen.


Ildo honetatik, dokumentu honek bi aurpegi kontrajarri agerian uzten ditu. Alde batetik, emakumeek oinordeko izateko aitortza legala agerian geratzen da, Penintsulako beste toki batzuetan baino gehiago; bestetik, egitura patriarkalak eta emakume eta gizonen arteko desorekak, emakumeen autonomia mugatzen zuen, ondasunak gizonengan kontzentratu baitziren kasu honetan behintzat.

Artxiboetara itzuliz, bertan gordetako aipamen ugariak argi uzten dute Lerchundi ez zela oharkabean igaro, baizik eta presentzia garrantzitsua izan zuela bai Getarian baita bere inguruko komunitatean ere. Haren senarraren inguruan hainbat ikerketa burutu dira, nahiz eta Francisca beraren izena oraindik nahiko ezezaguna izan. Haren senarra, Antonio de Urquiola (1536-1600), XVI. mendearen lehen erdian Getarian jaioa, itsas gizon eta ontzigintza arloko pertsona garrantzitsua izan zen. Kargu ugari bete zituen; tartean, Getariako alkate (1577), Gipuzkoako diruzain (1580), eta Santiago (Urola ibaia) zein Pasaiaiko ontzioletako zuzendari. Kantabriako Esquadrako jenerala izendatu zuten, eta 1597an Lezon galeoiak eraikitzeke zuzendari bilakatu zen. 1598an Gipuzkoako "ontzi eta landaketarako lantegiaren" gainbegirale (superintendente) izendatu zuten, eta 1600ra arte aritu zen karguan eta urte berean hil zen Madrilén. (Basurto eta Montoya., 2018, 141-142). Azpimarragarria da Antonio de Urquiolak garaian eduki zuen garrantziak, haren postu eta familia hierarkia medio, ez zuela Franciscaren irudia itzalpean utzi.

Hainbat dokumentutan Franciscak bere buruaren izenean jarduten du, senarraren baimenarekin gehienetan, beti Antonio de Urquiolarekin zuen harremana idatzietan azpimarratuz. 1595eko irailaren 6ko testuan⁵ argi geratzen da Franciscak salmentak egiteko zuen gaitasun eta batez ere aukera, kasu honetan senarraren baimenarekin. Gainera azpimarragarria da salmenta-erosketa ekintza hau bi emakumeen artean burutu zela, haien ahalmen ekonomikoaren eta halako ekintza ekonomikoak burutzeko zuten aukera azaleratuz. Aldi berean ahalmen ekonomikoaren berri ere ematen digu, emakume

⁵ AHPG-GPAH NOT 2/3018, A:254v-259v

hauek elkarren artean negozioak egiteko ahalmena baitzuten, ondorioz, ez ziren soilik gizonezkoen presentziaren edo haien artean gauzatzen ziren ekintzak. Horrelako agiriek, beraz, garai hartako emakumeen errealitate konplexua eta askotarikoa erakusten dute. Zehazki honela agertzen da lehen mailako testuan:




2. Irudia. Dokumentuaren argazkia. AHPG-GPAH NOT 2/3018, A:254v-259v.

“Venta q doña Francisca de Lerchundi haze a Magdalena (...)

*doña Francisca de Lerchundi vezina della [Zarautz] y de la de guetaria muger
legitima del general Antonio de Urquiola*

por si y en nombre del por virtud de su poder y licencia marital(...).”

2.irudian ikus daitekeen zati horretan dago gakoa, izan ere, Lerchundik gaitasuna eduki arren, ekintza zehatz honetarako behintzat haren senarraren baimena edo lizentzia maritala behar zuen. Gogora dezagun ezinbestekoa zela emakumeentzat lizentzia hau jarduera juridikoak burutu ahal izateko (Toroko legeek hala ezartzen baitzuten). Lehen mailako dokumentuaren hurrengo orrietan lizentzia bera dago, 3. irudian ageri dena hain zuzen ere, eta bertan azaleratzen da hain zuzen ere, lizentzia hau ematearen arrazoia:



3. Irudia. Lehen mailako dokumentua. AHPG-GPAH NOT 2/3018, A:254v-259v

“Sepan quantos esta carta de poder vieren como yo Antonio de Urquiola capitan general dela armada del rey nuestro señor conque oy he salido del puerto del pasaje para yr en su real servicio. Vezino de la villa de guetaria otorgo y reconosco por esta carta q doy todo mi poder cumplido libre y bastante quanto es necesario para valer e yo lo tengo y puedo dar con licencia marital en forma a vos doña francisca de lerchundi mi legitima muger que estais ausente para que por mi y en mi nombre e como yo mismo lo podria presente siendo podais pedir y demandar, recibir e cobrar en juicio (...).”

Hortaz senarraren ausentzian emazteak zuen haren boterea, izan ere, alarguntasunak eta senarraren presentzia ezak emazteei eskubide eta ahalmen gehiago ematen zizkien. Kasu zehatz honetan, senarra erregearen zerbitzuan luzaroan kanpoan egoteak emazteari eguneroko ardura ekonomiko eta legalak bere gain hartzea eskatzen zion. Honek Francisca komunitatean benetako administratzaile gisa kokatzen zuen. Honela, Getaria kostako herria izanik gizonen ausentzia ohikoa zen, arratza herriaren oinarrietako bat baitzen. Formalki, baimen horrek emakumea senarraren menpe jartzen du, baina praktikan aukera berriak irekitzen zizkion. Francisca de Lerchundik auzitan demandak jrrri, kobratu edo negozioak kudea zitzakeen bere senarraren izenean, eta horrek nolabaiteko autonomia praktikoa ematen zion.

Boterea, aginpide bezala ere ezagutzen dena, kontratu bat da, non pertsona batek beste bati ardura edo gaien kudeaketa esleitzen dion eta hark onartzen duen. Mota honetako kontratuak XII. tituluko 20tik 25era bitarteko legeek arautzen zituzten, bostgarren partida barruan. Boterea edo aginpidea bi motatan banatzen da: judiziala eta judizialaz kanpoko. Judiziala, pertsonaritza izenez ere ezagutzen dena, prokuradoreen ordezkaritza eta esku hartzea judizioetan adierazten du. Judizialaz kanpoko, bere forma dela eta, adierazgarria, isila edo suposatua izan daiteke; luzeraren arabera, orokorra edo berezia; interesa duten harremanengatik, doakoa edo ordainpekoa; erantzukizunen arabera, elkarlana edo solidarioa; eta eraginkortasunaren arabera, bertan behera utzigarria edo ukiezina izan daiteke. Botere kontzeptuaren barruan egin daitezkeen aginduetako bat beste batek testamentua egiteko duen boterea da (Marchant eta Barrena, 2023, 131-132)

Aipatutako dokumentuaren egun bereko, hots, 1595eko irailaren seian, Pedro del Puerto eta Francisca de Lerchundiren arteko salketa-erosketa baten dokumentua dugu ⁶. Lehenengoak, Balthasar eta Catalina de Çulaica anai-arreben ordezkaria edo “*curador*”ea da. Izan ere, anai arrebek hogeita bost urte baino gutxiago zituztenez adin txikikotzat hartzen ziren.

Aldiz, dakigunez, Franciscak haren senarraren izenean jarduten du ekintza honetan ere. Balthasar eta Catalina Joan de Çulaicaren eta Maria de Garmendiaren seme alaba legitimoak ziren, baina Francisca eta Antoniorekin zituzten zorrak zirela eta, Pedro del Puertok, haien izenean, zensoa ordaintze aldera, etxe bat saltzen dio Franciscari. Izan ere, hainbat zenso zituzten ordaindu beharrak “un censo de siete ducados al año” eta “otro censo de veinte cinco ducados poco mas o menos” tartean. Testu honek curadoreen berri ematen digu baita seme-alaba legitimoak edo orokorrean legitimitatearen garrantziaren berri. Hau da, testu honek garai hartan adin juridikoaren muga zorrotz aplikatzen zirela azaleratzen du eta legitimitatearen ideia funtsezkoa zela agerian geratzen da, bai auzi ekonomikoetan, bai gizarte egituraketan.

Gainera, ikusten da Francisca de Lerchundi pertsonan joan zela hara “*y ella vino para que con su presencia se pudiesen desacer dichos censos*” haren mugitzeko autonomia, autonomia orokorrean eta haren presentziaren garrantzia mahai-gaineratuz.

Aldi berean, zensoen ohikotasunaren berri ematen digu, baita Franciscaren gaitasunaren berri ere, salmentak, tratuak eta zensoen amaierak finkatzeko. Zensoak

⁶ AHPG-GPAH NOT 2/3018, A:260r-283r

egungo hipoteka-maileguen antzekoak ziren. Azken finean pertsonen edo erakundeen arteko kontratuak ziren. Bertan, aldeetako batek diru-kopuru bat ematen zion besteari, eta bigarrengoak bere gain hartzen zuen urteko zenbateko bat ordaintzeko betebeharra, horretarako, jabetza bat kargatzen zuen berme gisa (Intxaustegi, 2019, 69). Badira Francisca de Lerchundik burututako bestelako zensoen salmentak ere, tartean, 1595eko martxoaren 28an burututakoa⁷, zehazki, Francisca de Lerchundik eta haren senarrak, hau da, Antonio de Urquiola jeneralak burututakoa. Zensoa 7 dukatetakoa zen eta Chiirstoval de Nembururi, Zarautzekoa zena, saldu zioten.

1583koak dira Franciskaren inguruan aurkitutako lehen bi dokumentuak, lehena apirilaren 24koa⁸ eta bigarrena maiatzaren 24koa⁹. Lehenengoan jada 1595eko testuak erreferentzia egiten dion lizentzia maritala genuke. Bigarrena, hots, hilabete batera burutua, Francisca de Lerchundik Maria Velez de Olóçagaren alde eginiko “*carga de pago y finiquitoa*” genuke, hau da, bi emakumeren arteko hitzarmena eta idatzia. Zehazki, Francisca de Lerchundik, bere senar Antonio de Urquiolaren ahaldun gisa, Alçolarás de Suso orubeko María Vélez de Olóçagaren alde emandako ordainketa-gutuna eta kitapena da, betebeharrak batengatik zor zien diruaren zati batena.

Egia da, berriz ere Franciscak bere senarraren izenean jarduten duela baina honek ez dio garrantziarik kendu behar. Gizarte patriarkal batean gaudela duda ezina da, emazteak gizonaren baimenik gabe ezin baitu jardun. hala ere, azpimarragarria da emakume hauek burututakoa. Gainera, María Velez de Olóçaga Alçolarás de Suso “casa solar” aren etxeoandrea dela dio, horrek dakarren garrantziarekin. Ordainketa honen zergatia dela eta “*relativa a parte del dinero que les debía por una obligación*” aipatzen da.

Franciscak haren bizitzan zehar hainbat ordainketa burutu zituela agerikoa da, tartean 1595eko martxoaren 28ko dokumentuan¹⁰ aipatzen dena¹¹ edo urte bereko apirilaren 8ko idatzian aipatzen dena genituzke. Lehenak Ana de Ausoroechea andreak, Joanes de Ybaietaren emazteak eta ahaldunak, Zarautzekoak, eta Francisca de Lerchundik, Antonio de Urquiola jeneralaren emaztea eta Baltasar de Urquiolaren ama denak, emandako ordainketa-gutuna da. Ordain gutun honek, Joanesek Cadizen Baltasar jaunari egindako mailegu bati eta Joanesek jeneralari bizkotxo baten bidez zor zion diruari egiten diote

⁷ AHPG-GPAH NOT 2/3018,A:63v-67r

⁸ AHPG-GPAH NOT 2/3008,A:51r-52r

⁹ AHPG-GPAH NOT 2/3008,A:69r-70r

¹⁰ AHPG-GPAH NOT 2/3018,A:67r-69r

¹¹ AHPG-GPAH NOT 2/3018,A:74v-75r

erreferentzia. Ordainketa honen artxibo honek Franciskaren semearen berri ematen digu, jada ez da soilik haren senarraren arabera definitzen baizik eta haren semeak ere haren izatea definitzen du. Honek informazioa ematen digu amatasunaren garrantziaren inguruan, eta kasu zehatz honetan Franciscak haren bizitzan zehar, gutxienez seme bat eduki zuela mahai gaineratzen du. Bigarren idatzia ere ordainketa-agiria eta kitapen-agiria da. Kasu honetan, Joanes de Gurmendi Donostiako bizilagunak eta bere anaia Andres de Gurmendiren lagapen-hartzaileak, Julián de Onsain jaunaren alde emandako ordainketa-gutuna eta kitapena da. Antonio de Urquiola jeneralak eta Francisca de Lerchundi Andresen alde ezarritako errolda baten etekinei buruzkoa.

1601eko abenduaren 30eko idatzia ere¹² ordainketa gutun eta kitapena da. Kasu honetan, Pedro del Puerto Balthasar de Çulayca zenaren eta haren arreba Catalina de Çulaycaren *curadoreak* Francisca de Lerchundi Antonio de Urquiola jeneralaren alargunaren alde emandako ordainketa-gutuna eta kitapena da, Ygoguindeguiren etxea saltzeagatik zor zieten diruari buruzkoa. Testu honek, ekintza ekonomikotik at ere informazio garrantzitsua ematen digu Franciscaren bizitzari buruz, izan ere, aurreko dokumentuan Francisca “*esposa de*” izendatzen den heinean, testu honetan “*viuda de*” gisa azaltzen da. Hortaz, haren senarraren heriotzari buruz hitz egin dezakegu.


Alargunen egoera, azaldu moduan, berezia da. Horren isla alargunaren figura, dokumentuetan sarritan agertzea da. Aldi berean, Antzinako Erregimenaren dokumentazioan errepikatzeaz gain, ondo definitutako identitatearekin aurkezten da. XVII.mendean,, emakumeak figura maskulino hurbilenaren eta harekin zuten legezko harremanaren arabera sailkatzen ziren: Kristoren alaba, emazte, alargun edo emazte gisa. Testuinguru horretan, eta inguruan gizonezko “zaintzaile” edo oztopo baten faltan alargunak dira beren eskubideak, jabetzak eta pribilegioak defendatzeko auzitegi-tara gehien jotzen duen emakume-taldea. Aitzitik, oso zaila da gizonen alarguntasuna kuantifikatzea; izan ere, gizonak beren gizarte-posizioagatik, lanbideagatik edo erlijio-egoeragatik identifikatzen ziren nagusiki, ez haren egoera zibilagatik. Ezaugarri honek agerian uzten du emakume alargunek esparru juridikoan izan zuten zeregin aktiboa eta nabarmena. Adibidez, garai hartan Nafarroako Artxibo Nagusian (AGN) erregistratutako auzien % 12,67 izan baitziren. Alargunek familia-negozioen ardura ondorio guztiekin bereganatzen zituzten. Ondorioz, legezko ekintzei ekiten zieten etxeko interes

¹² AHPG-GPAH NOT 2/3026,A:3v-5v

ekonomikoak auzitegietan defendatzen (Azpiazu, 1995, 34-36; Nausia, 2006, 234-236; Oliveri, 2006, 56).

Ildo horretan, eta hala eta guztiz ere, emakumeen alarguntasuna kontzeptu erabat heterogeneo gisa ulertu behar da, hainbat faktore eta egoerak baldintzatuta. Emakume kontzeptuarekin azpimarratzen zen moduan, pertsona bakoitzaren testuinguruari erreparatzea izango da garrantzitsuen, egoera benetan desberdinak aurki daitezkeelako. Kontuan hartu beharko genuke ezberdintasuna bat-batean bikotekidea galdu duen emakume ezkonduaren eta urteetako bizikidetzaren ondoren familiaren buru bihurtu den emaztearen artean; baita seme-alaba kopurua ere, emakumea haiekin geratzen zen kasuan, baita hauen adina ere. Alde handien artean, alargunak bizirik irauteko zituen baliabidek hartu behar dira kontuan, honek testuinguru eta egoera osoa alda baitzezakeen (Nausia, 2006, 234-236).

1603ko otsailaren 13ko testua¹³ benetan adierazgarria da, izan ere, Francisca de Lerchundiren inguruan dugun bigarren botere ematea genuke. Kasu honetan, senarra hilik, boterea bere semeak ematen dio 4.irudian ikus daitekeen modura. Honela dio testuak:



4. Irudia. Lehen mailako dokumentua, boterea semeak amari helaraztea dio. AHPG-GPAH NOT 2/3027,A:16r-17r.

¹³ AHPG-GPAH NOT 2/3027,A:16r-17r

“Poder del capitan Balthasar de Urquiola para madre:

*Sepan los que esta carta vieren como yo el capitan Balthasar de
Urquiola vezino de la villa de guetaria y zarautz hijo legitimo
y heredero universal del general Antonio de Urquiola difunto*

cuya [herencia] con veneficio de inventario

(...)

conozco quedo y otorgo todo mi poder tan

cumpido y bastante como le tendo y de dicho

para valer a doña francisca de lerchundi mi madre, esta


presente (aunque lo pueda jurar y sustituir una [persona]

y vez dos camas) para que por mi y en mi nombre pueda

recibir cobrar (...)”

Testu honek botere transferentziaren inguruan ematen digun informazioaz gain, Franciscaren bizitzan garrantzitsua izango den bigarren pertsona bat aurkezten digu, haren semea alegia. Testu hau are harrigarriagoa edo adierazgarriagoa egiten duena, urte eta egun bereko, hau da, 1603ko otsailaren 13an burututako bigarren dokumentua genuke¹⁴. Izan ere, bosgarren irudian ikus daitekeen dokumentu honen bidez Francisca de Lerchundik haren semeari, hots, Balthasar de Urquiolari, boterea ematen dio Milanen duen señorioa kudeatzeko, hau da, bertako zergak biltzeko. Honakoa dio zehazki dokumentuak:

¹⁴ AHPG-GPAH NOT 2/3027, A:17r-18r



5. Irudia. Lehen mailako testu zati honetan boterea amak semeari ematen dio. AHPG-GPAH NOT 2/3027, A:17r-18r.

“Poder de doña Francisca de Lerchundi al capitan Urquiola su hijo.

Sepan los que esta carta vieren como yo doña Francisca de ler-

chundi viuda del general Antonio de Urquiola difunto

vezino de las villas de guetaria y carauz (...)

y otorgo todo mi poder asi cumplido y bastante

como le tengo y de derecho (...)

a Balthasar de Urquiola mi hijo (...)

Para que por mi en mi nombre e para mi pueda

elegirlos tales sustituto o sustitutos, rezibir en vez

e cobrar (...)

del señorío de milan(...)”

Garaiko testu honek, Franciscak zituen botere luzeen inguruan hitz egiten digu, botere guztiak zerrendatzen baitira erregistro luze bat idatziz. Izan ere, botere guzti hauek haren

semeari ematen dizkio, betiere bere izenean jokatzeko. Argi geratzen da, emakume honen boterea eta influentzia, hasiera batean, semeari joan zitzaizkion botere guztiak, semeak amari itzultzen dizkiolako aurreko testuaren bidez. Orain, aldiz, egun berean burututako dokumentu honetan, ama da semeari Milanen ekintza konkretu batzuk burutzeko ahalmena ematen diona. Honela, familiaren baitan dauden botere harremanak agerian geratzen dira, legeetatik at, praktikan, bestelako ekintza eta jarduerak burutzen zirela mahai gainean utziz.

Idatzi honen amaieran, Franciscaren heziketaren informazioaren berri ere ematen digu, izan ere, Franciscak ez zekien idazten, testuak “(...) *e por la dicha otorgante (quien yo el dicho escrivano conozco) dixo que no sabia escribir firma por ella (...)*” dio. Hau ez da harritzekoa testuinguruari erreparatzen badiogu. Adibide askotan ekintza beraren berri ematen digute lehen mailako dokumentuek garaiko hezkuntza edo formakuntzaren berri emanez. Orain arte euskal lurraldean dokumentatutako merkatari alfabetatu bakarra Catalina de Mambrún donostiarra da, Ernesto Garciak aurkitutako kasua (Castrillo, 2021, 306).

Franciscak boterea haren semeari eman eta hiru hilabetetara laugarren botere emate bat dugu, kasu honetan, 1603ko, maiatzaren 3an¹⁵ Francisca de Lerchundik Joan de Aycaga eta Cristobal de Yruretari eman zien boterea haren izenean jarduteko. Bi gizon hauek, Milaneko señorioan bizi ziren eta haien eginkizuna Franciscak emandako ahalmenarekin, Milaren zituen zergak biltzea zen. “*Poder de doña francisca de lerchundi para Millan*” da dokumentuaren izenburua.

Idatzi honetatik 11 egunetara Franciscaren inguruan kontserbatzen den ondorengo idatzia dugu, zehazki, maiatzaren 15ekoa¹⁶ idatzi hau ordainketa gutun eta kitapena da. Francisca de Lerchundi alargunak eta haren seme Balthasar de Urquiola kapitainak, eta Diego de Salamanca merkatari zenaren lagapen-hartzaileek, Joanes de Lerchundiren jaraunsleen alde emandakoa. Joanes de Lerchundik eta haren emazte Maria Miguel de Adurizek Diego de Salamancaren alde ezarri zuten erroldaren etekinen gainekoa.

Hilabeteek aurrera egin eta Francisca de Lerchundik ekintza ekonomikoetan murgildurik jarraitzen zuela agerian geratzen da. Haren semearekin botere emateak

¹⁵ AHPG-GPAH, NOT 2/3027, A.:162v-164v


¹⁶ AHPG-GPAH NOT 2/3027,A:168r-169v

burutu eta 7 hilabetetara, berriz eta Franciscaren beste dokumentu bat dugu, kasu honetan bere figuraren inguruan aurkitu den azkena. Zehazki 1603ko irailaren 5eko dokumentu honetan¹⁷ Andres de Leete ere aipatzen da. Dokumentu honek berrerosketa baten berri ematen digu. Hots, zenso baten berrerosketaren berri. Izenburuak “*Redemption de censo otorgado por Andres de Leete en favor de doña francisca de lerchundi*” dio. Dokumentuak ekintza ekonomiko soil baten berri ematen du, eta hasierako begirada batean ezer garrantzitsua ez dirudien arren, ulertu behar garaian, emakume honek zuen influentzia, hala ere, harrigarria da, hainbeste jarduera burutu eta halako influentzia zuela agerikoa den arren, Francisca aurkezteko unean, alarguna zela aipatzen dela berriz ere. Uneoro, burutzen dituen ekintza guztietan haren senarra aipatzen da. Hau bizirik zegoenean, “*esposa legitima de*” erabiltzen zen, orain; aldiz, senarra hilik dagoelarik argi geratzen da, noren alarguna den “*viuda del general Antonio de Urquiola dfunto*”. Hortaz, Lerchundiren boterea ukaezina den arren, garaiko gizartean zegoen hierarkia patriarkaetik ez zuen ihes egin, ez itxuretan behintzat, eta haren senarraren izatea, baita hilik ere, bere izatea baldintzatu, mugatu eta bideratu zuen. Ildo beretik, garaiko definizioetan —Irlandako Richard Steele idazleak egindakoan, adibidez— emakumea «alaba, arreba, emazte eta ama da, giza arrazaren eranskin hutsa». Ondorioz, ez da arraroa, artxiboetako dokumentuetan ohikoa izatea emakumearen izen-abizenen ondoan gizonezko batekiko ahaidetasuna adieraztea: «honen alarguna», «honen emaztea», «honen alaba» (Galdós, 2021, 68).

Franciscaren leinuak jarraitu egin zuen, izan ere, Franciscaren semeari buruzko informazioak haren ezkontzaren berri ematen digu. 1619ko abuztuaren 5ean Hondarribian ezkontza-kontratua sinatu zuten Baltasar de Urquiola kapitainak; hau da, Franciscaren semeak eta Lucía de Olaberria andreak, 6. irudian ikus daitezke familiaren nondik-norakoak. Baltasar, Antonio de Urquiola jenerala eta Francisca de Lerchundiren seme bakarra eta oinordeko bakarra izanik eta ezkontzan bere aitak eta amak utzitako ondasunak ekarri zituen, besteak beste, Getaria eta Zarautzeko lur sailak eta bere aitak armadan egindako zerbitzuengatik zor zitzaizkion diruak. Aldi berean, badakigu, 26 urte zeramatzala ezkondu zen unean erregearen zerbitzura. Bertan botere egiturek nola funtzionatzen zuten ikus daiteke, haren aitaren garrantzia (hau da materiala ez zen herentzia gisa kontsidera daitekeena) bereganatu zuen, eginbeharrekin batera.

¹⁷ AHPG-GPAH NOT 2/3027,A:241v-243r

Lucía Olaberria, Hondarribian jaioa, 24 urterekin ezkondu zen, eta hau ere erregearen zerbitzuko marinel-familiako alaba zen, eta 3.000 dukateko dotea jaso zuen. Hona hemen ezkontza estrategien adibidea, bi familia boteretsu, biak erregearekin loturak zituztenak haien artean ezkondu ziren familiaren eta etxearen ohorea, indarra eta boterea sendotzeko eta berrindartzeko. Eskuratu zituzten ondasunen artean, Getariako sute batean erre zen etxea aipatu behar da Juan Sebastián Elcano kapitain ospetsuarena izan baitzen; hau da, Baltasarren osabarena. Baltasar Elkanoren oinordeko gisa agertzen da, eta haren memoria eta ondasunak jaso zituen, bere aitak, jenerala zenak, eskualdatu baitzizkion ondare gisa (de Aguinagalde, 2017, 67-68).



6. Irudia. Francisca de Lerchundiren familiaren zuhaitz kronologikoa aurreko dokumentuak oinarri. Autoreak egina

Francisca de Lerchundiren inguruko dokumentazioak argi erakusten du XVII. mendeko Getarian emakumeen bizitza eta ahalmen juridiko-ekonomikoak ez zirela homogeenak, baizik eta testuinguru, harreman eta egoera zehatzen arabera baldintzatuak. Franciscaren kasu zehatzarekin lizentzia maritalaren beharrezkotasuna agerian geratu da. Emakumearen jardura juridiko eta ekonomiko oro mugaturik zegoen arren, praktikan, senarraren absenteziak (itsas gizona izanik, erregearen zerbitzuan) Francisca bezalako emazteei ardura eta botere handiagoak esleitu zizkien. Bigarren elementua alarguntasuna bera litzateke, honek, are gehiago indartu baitzuen haren autonomia, gizarte patriarkalaren logikatik ihes egin gabe, baina auzitegi eta ekonomia esparruetan emakumeak subjektu aktibo gisa kokatuz. Hirugarrenik, salerosketak eta

zensoen kudeaketa bezalako ekintzek Francisca erabat murgilduta zegoela erakusten dute tokiko ekonomian, eta mahai gainera dezake negozioetan emakumeen presentzia ez zela soilik anekdotikoa, baizik eta komunitatearen funtzionamenduan funtsezkoa zela. Komunitatearen funtzionamenduarekin jarraituz laugarren elementua familia eta ahaidetasun-sareak genituzke. Izan ere, haun arabera definitzen zen emakumearen egoera eta izaera. “*Esposa de*”, “*viuda de*” edo “*madre de*” izendapenek erakusten dute patriarkatuak emakumeen nortasuna gizonen bidez markatzen zuela. Hala ere, Franciscaren kasuak frogatzen du izaera horren azpian botere eta protagonismo erreal eta ukaezina ezkutatzen zela. Bosgarren elementua jarraikortasuna litzateke; izan ere, ondorengo belaunaldiek (Balthasar semearekin eta Lucia de Olabarriarekin burututako ezkontza estrategikoaren bidez) jarraitu zuten familia boteretsu baten ibilbidea. Horrek Francisca garaiko emakume gisa definitzeaz gain, genealogia baten giltzarri gisa ere kokatzen du.

Azken finean, Francisca de Lerchundi bezalako figuren bidez ikus daiteke emakumeen historia ez dagoela isilik ezta ikusezin ere, baizik eta artxiboetako paper zaharretan ezkutaturik dagoela. Bere bizitzaren arrastoek erakusten dute emakumeek, nahiz eta legeak muga zorrotzak ezarri, eguneroko praktikan komunitatearen ekonomian, gizartean eta familian eragile aktibo eta erabakigarriak izan zirela.

Getariarekin loturiko artxiboetan gordetako testigantzek gogorarazten digute emakume hauek ez zirela “gizon baten itzal” soilak izan, aitzitik, beren nortasun eta ahalmen propioekin jarduten zutela. Emakume zehatzen kasuak berreskuratzeak, Franciscaren adibidea kasu, aukera ematen digu historia ofizialaren hutsuneak betetzeko eta irudi osoago bat eraikitzeke. Horrela, Francisca de Lerchundiren bizitzak ez du soilik Getariako XVII. mendeko emakume baten historia pertsonala kontatzen: haren bidez, garaiko gizartearen mekanismoak, genero-harremanen mugak eta aukerak, eta emakumeen egoera ulertzeko gakoak eskuratzen ditugu.

6.3. Inglesa Lopez de Zarautz

XVI. mendearen amaierako dokumentu bat hartuko dugu orain oinarri. XVI. mendearen bigarren erdialdeko informazio esanguratsua ematen baitigu Inglesa Lopez de

Zarautzen inguruko auziak¹⁸. 1562ko idatzi honek emakume zehatz baten presentzia eta ekintza juridikoa modu agerian jasotzen ditu. Inglesa ez zen soilik Juan Ortiz de Zarauzen, haren senarraren, itzalpean bizitu; aitzitik, senarrarekin batera, modu aktibo batean parte hartu zuen gutxienez dokumentuak aurkezten digun auzi honetan, bere ondasunak eta familiaren segurtasun ekonomikoa jokoan zeudelarik. Kasu honetan, auzia urrezko, zilarrezko eta moneta multzo baten gaineko jabetza eta itzulera dela eta hasi zen, ondasun horiek fidantza modura utzi ziren gordailu batean, baina hartzaileek ez zituzten itzuli nahi:

*“juan deposito (...) en confianza las pieza de oro
y plata y monedas de oro (...)”*

Hartzaileen izenak ere baditugu, hau da, Domingo de Arpa eta Bartolomé de Aguirre. Froga gisa senar-emazteek sinadurak aurkeztu zituzten eta ordurako aitortutako dokumentuak. Honela, hauek aintzat hartuta, auzitegiak ebatzi zuen ondasunak edo haien balioa itzuli behar zela, auziaren eskaerari indar exekutiboa emanez.

Juan Ortiz de Zarauz eta Inglesa Lópezen auziaren testuinguruan, urrezko eta zilarrezko txanpon eta piezen gordailuak egoteak ez du zertan esan nahi aristokraziako kideak zirenik, baina bai baliabide ekonomiko maila jakin bat zutela ondasun baliotsu horiek edukitzeko, legez auzitara jotzeko eta beste batzuek gordailu horiek zaintzeko ahalmena izateko. Genero-ikuspegitik, garrantzitsua da azpimarratzea emakumea izen-abizenekin ageri dela, eta ez dela pasiboki aipatzen, baizik eta bere eskubideen eta etxeo ondarearen defentsan subjektu aktibo gisa azaltzen da. Honek frogatzen du Aro Berrian, nahiz eta askotan (edo ia beti) emakumezkoak senarraren izenarekin batera agertu, emakumeek legezko legitimitatea zutela ondasun eta ondare kontuetan esku hartzeko. Ondorioz, irudi estereotipatu pasiboaren aurrean bestelako irudi bat genuke, emakume aktiboena. Emakumeak beti guztiz bazterturik zeudela sinetsarazi nahi izan duten hipotesietatik at, aniztasuna izango da ohikoa.


Laburbilduz, dokumentu honek ez du soilik ekonomia- edo ondasun-arazoa islatzen; Inglesa López de Zarauz bezalako emakumeek gizarte gipuzkoarrean eta zehazki Getarian zuten presentzia eta jarduera juridiko legitimoa, ondasunen zaintzaren eta familien etorkizun ekonomikoaren defentsaren esparruan.

¹⁸ Archivo de la Real Chancillería de Valladolid (ARCHV), REGISTRO DE EJECUTORIAS, CAJA 1526, 44.

6.4. Catalyna de Eycaga

1603ko azaroaren 18ko testu batek¹⁹ bi emakumeren arteko ekintza ekonomikoaren berri ematen digu, zehazki Catalina de Eycaga eta Maria de Valenceguiren arteko zor baten lagapena edo eskualdaketak dugu, lehenak bigarrenaren onurarako burututakoa eta modu erraz batean 7.irudian ikus daitekeena. Agiri honek eskaintzen digun informazioa bereziki deigarria da hainbat izen aipatzen diren arren, protagonista nagusiak emakumeak direlako. Getariako bizilaguna eta Donostian bizi zen Catalina Eycaga doña María de Valenceguiren ordezkari gisa izendatzen da (lehengusinak ziren), eta hark Katalina de Arriolari, “*donzella*” gisa agertzen den gazteari, jatorrizko zordunen alaba zenari, helarazi zion Francisco de Arriola eta Ynesa de Sarobek Valenceguiri zor zioten kopurua. Ondorioz eta praktikan zor hori ez zen kobratu, baizik eta gaztearen aldeko dohain bihurtuz desagertu egin zen. 7.irudian ikus daitezkeen ekintza ekonomikoaren mugimenduak osotasunean aztertuz, azpimarragarria da agiri honek ez duela soilik kontu ekonomiko bat jasotzen; laguntza eta babes-ekintza bat da, zor bat barkatzen baita eta gazte bati baliabideak aitortzen baitzaizkio.

2.115 ERREALEKO ZORRA



7. Irudia. Zorraren mugimenduak. Autoreak egina.

Testuak argi erakusten du emakumeek ere parte hartu zutela garai hartako ekonomia eta lege munduan. Ohiko iruditeriak gizonezkoiei egozten zien rol hori, baina hemen emakumeak agertzen dira hartzekodun, lagapena eta onuradun gisa, zorren kudeaketan eta idazkun juridiko konplexuetan erabateko presentziarekin. Horrek frogatzen du Aro Berriko Euskal Herriko gizartean ez zeudela guztiz bazterturik, eta esparru horietan

¹⁹ AHPG-GPAH NOT 2/3027,A:262r-263v

ekiteko gaitasuna izan zezaketela, notarioaren eta monarkiaren lege babespean, betiere testuinguruaren arabera.


Bestalde, ez da nolanahiko datua Katalina de Arriola neskame izatea. Bere egoera zibilaren adierazpen hori garrantzitsua da, gizarte hartan ezkondu gabeko emakumeak mendekotasun handiagoan baitzeuden, ez baitzuten senarraren babes juridikorik eta sarri ezta ondasun propio nahikorik ere. Hori dela eta, berari zuzenean zor baten eskubidea ematea bere ahalduntze pertsonal eta sozialaren adierazgarri da. Gainera, Maria de Valençeguik hartu zuen erabakia elkartasun femeninoaren adibide gisa uler daiteke: emakume batek beste emakume gazte baten alde egindako babes eta laguntza keinu argia. Aldi berean, familia sarearen garrantziaren berri ematen digu, Mari de Valencegui eta Catalina de Eycagaren arteko konfiantza harremana mahai gaineratzen baita, lehengusinak izanik.

Harreman pertsonalen garrantziaren ildotik eta zorraren jatorria ulertzeko, bigarren dokumentu²⁰ bat (1602ko urriaren 3koa) beharrezkoa da. Izan ere, testuak aipatzen dituen harreman ekonomiko eta pertsonalak azpimarragarriak dira. Zorraren lagapena ekintza ekonomiko zabalago baten barruan burutu zela adierazten du dokumentuak. Izan ere, Doña María de Balençeguik Catalina de Eyçagari zorra kobratzeko eskubidearekin batera hainbat eskubide ekonomiko eman zizkion. Zorraren jatorriaren ildotik, Martín de Arriola kapitainak zentsu bat ezarria zuen (interes finko baten truke emandako mailegu edo inbertsio mota) Joanes de Urreizti eta Domenja de Licarca senar-emazteen alde, 8.irudian azter daitekeen modura. Hau da, senar-emazteek dirua jaso zuten Arriolarengandik, eta urteko errenta edo interesa ordaintzeko konpromisoa hartu zuten.

Urreizti eta haren emaztea hil zirenean, Ynesa de Sarobe eta Francisco de Arriola (seguruenik haien oinordeko edo ahaideak) geratu ziren zor horren ordainketa-betebeharrean; hau da, zentsuaren errentak edo interesak ordaintzen jarraitu behar zuten. Arriola kapitaina hil ondoren, haren alargun María de Balençeguik eskuratu zuen zor hori kobratzeko eskubidea. Ostean, Catalina de Eyçagari egindako eskualdaketan, Mariak eskubide hori (baita bi oheak ere) Catalinari utzi zizkion, ordain gisa, kapitain Arriolak testamentuan agindutako legatuengatik eta Catalinak egindako zerbitzuengatik.

²⁰ AHPG-GPAH NOT 2/3026,A:191v-193v

ZORRAREN JATORRIA



8. Irudia. Zorraren jatorriaren inguruko eskema. Autoreak egina.

Ondoren gertatu zena jada badakigu, zorra Ynesa Sarobe eta Francisco de Arriolaren alabak (Francisca de Arriolak) bereganatu zuen gurasoak hiltzerakoan, baina Catalina de Eycagak zorraren jabetza eman zion, zorra ezerezean geratuz.

Beraz, zor hori lotura pertsonalen eta betebeharrak sozial-juridikoen nahasketa baten emaitza zen. Alde batetik, zentsu baten ordainketak eta finantza-betebeharrak, eta bestetik, leialtasun eta zerbitzu harremanengatik sortutako zor moralak eta materialak. Horrek azaltzen du nola zor horrek dimentsio ekonomiko hutsetik harago joaten zen, familiako, auzoko eta sare sozial zabalago bateko konpromisoak islatuz.

Bestalde, testu honek emakumea alargundu ostean gerta zitekeenaren berri ematen digu. Kasu honetan, izan ere, Maria de Valencegui alargun geratu ostean berriz ezkontzea “erabaki” zuen eta hartara behartua izan zen. Arrazoia zein izan zen ez dakigun arren, bigarren ezkontza hau gauzatu zela jakin badakigu. Testuak honela adierazten du :

“(…) la señora doña maria de Valencegui (…) muger legitima del capital de arriola difunto y agora lo es del capitan pedro de yurrira (…)”.

Bigarren ezkontzak direla eta. Gaztelan, XVII. mendearen hasieran, bigarren eta hirugarren ezkontzen kopurua oso handia zen, nahiz eta testuinguru gehienetan ezkontza horiek begi onez ikusiak ez izan (Nausia, 2006, 236). Bigarren ezkontza hauen arrazoiak ugariak izan zitezkeen, Pozuelo herriko ikerketak oinarri hartuz Barbazzak adierazten du bigarren ezkontzen kopuru handia XVI. mendearen amaierako epidemiek eragindako hilkortasun handiarekin lotuta dagoela. Gertaera horiek familia-buru askoren galera ekarri zuten, bizirik atera zirenek etxeak berreraikitzen eta ekoizpen-unitateak berreskuratzen

saiatu ziren, ezkontide berrien bila. Badira, kontuan hartzeko beste arrazoiak ere. Tartean, faktore psikologikoa genuke, funtsezko osagaia baizen. Ildo horretatik, Isabel Testónek proposatzen du Aro Berriko gizartean heriotza erabat barneratua zegoen aldetik, ezkontza berriak hastea bizirauteko premia bihurtzen zela. Heriotzek sarritan gazteak ziren alargunak sortzen zituen; horregatik, senarra doluz betiko oroitzen zuen alargunaren irudia ez zen ohikoa (Nausia, 2006, 241-242).

Nahiz eta alargun batekin ezkontzeak hainbat abantaila praktiko eta ekonomiko ekar zitzakeen, halako ezkontzek maiz komunitatearen begirada zorrotza eta kritika soziala pizten zituzten. Euskal Herrian Xaribari gisa izendatzen ziren ekintzak ditugu adibide gisa, ia XX.menderaino iraun zutenak. Frantzian *charivari* izena hartu zuten; Espainiako Monarkian, *zintzarrotadak* izeneko ekintzekin; Italian *mattinata* moduan; eta Ingalaterran, *skimmington ride* edo *rough music* izeneko ekintzekin. Praktika hauek landa- zein hiri-inguruneetan ohikoak ziren, eta tokiko gazte taldeek antolatzen zituzten, adineko pertsona batek gazte eta oraindik ezkongabe zen norbaitekin ezkontzen zenean desadostasuna adierazteko adibidez. Grieco historialariak *charivariak* ezkontzaren gaineko kontrol sozial, kolektibo, herrikoi eta erritualizatu baten moduan definitzen ditu.

Garai hartako egileen ikuspegian, alarguntasuna emakumearentzat egoerarik arriskutsuenetako bat zen, haren gain kontrola izango zuen figura maskulino baten faltagatik. Horregatik, Europa osoan bezala, hemen ere tratadoreen eta legegileen artean bigarren ezkontzak behin eta berriz aipatutako eta bereziki zaindutako gaietako bat bihurtu ziren. Aldi berean, emakumearen zintzotasunaren defentsarekiko kezka sakona zegoen garaian. Kezka hau abiapuntu, hainbat eztabaida mahai gaineratu ziren alargunei bigarren ezkontzak burutzea komenigarria ote zen ala ez erabakitzeko. Izan ere, haien ondoan gizon bat egotea beharrezkoa zen euren ohorea eta kastitatea babesteko. Printzipioz, doktrina katolikoa oinarri, bigarren ezkontzak ugalketa zilegiz gauzatzeko bide bakarra izan zitekeen. Hala ere, aurreko ezkontzak helburu hori beteta, bigarren batasuna alferrikakotzat eta desegokitza jotzen zen. Kasu horietan, alargunak bakardadean eta kastitatean iraun behar baitzuen (Nausia, 2006, 243-247).

Dokumentura itzuliz, agiri hau ez da soilik finantza ekintza baten isla; garai hartako emakumeen jardura eta agentzia ekonomikoa agerian uzten duen lekukotasun baliotsua da. Zor baten eskualdaketa honek erakusten du emakumeek ez zutela soilik etxeke esparruan jarduten, baizik eta merkataritzan, kreditutan eta lege munduan ere

protagonismoa har zezaketela. Genero ikuspegitik, testu honen garrantzia da emakumeek sortutako sareek eta ekintzek eragin zuzena zutela gizartearen eta ekonomiaren konfigurazioan, eta horrek irudi osoagoa eskaintzen digula XVII. mendeko emakumeen errealitateaz.

Hala ere, interesgarria da ikustea nola doña María de Valençeguik, nahiz eta agiri honetan ekintza juridiko eta ekonomiko garrantzitsuak gauzatzeko gaitasuna erakutsi, bere burua etengabe aurkezten duen Martin de Arriolaren emazte legitimo gisa. Ezaugarri hau hirugarren dokumentu batean aurki daiteke²¹. Idatzietan argi uzten da bere estatus juridikoa senarraren figurari lotuta dagoela, eta horrek azaltzen du zergatik behar duen *licencia marital* edo senarraren baimenaren aintzatespena, haren jarduera legalak baliozkoak izan daitezen. Honela dio dokumentuan:

“sepan los que esta carta vieren como yo doña Maria de Valencequi muger legitima del capitan Martin de Arriola (...) con licencia marital para hazer y otorgar esta carta (...)”

Hau da, emakumeak ageriko boterea eta ekimena erakusten badu ere, garai hartako ordenamendu juridikoak oraindik ere gizonezkoaren izenean eta babespean kokatzen du bere agentzia, emakumeen autonomia mugatua zela azpimarratuz.

6.5. Maria Basurto

Aurreko kasuetan aztertu moduan, eskuizkribu juridiko zaharrek, itxuraz hotz eta tekniko diruditen arren, garai bateko gizartearen egitura eta botere-harremanak agerian uzten dituzte. Dokumentu horietan ez dira soilik ondasun eta eskubideen inguruko gatazkak jasotzen, baizik eta familien barne-dinamikak, emakumeek gizartean, familian eta orokorrean eguneroko bizitzetan zuten lekua eta ohikotasunetik at gertatzen ziren jarduerak agerian geratzen dira. Aldi berean, emakume zehatzek eduki zituzten eskubideak edo lege mugatzaileak ere azter daitezke. Horregatik, auzi baten inguruko testu bat aztertzeak aukera paregabea eskaintzen du generoaren ikuspegitik begiratzeko eta ulertzeko nola uztartzen ziren legea eta patriarkatuaren muga praktikoak emakumeen bizitzan.

²¹ AHPG-GPAH NOT 2/3027,A:263v-265r

Getariako biztanleek hainbat auzitan parte hartu zutela ukalezina da, testuinguru honetan Maria de Basurtoren izena dugu. Honela, alde batetik, Maria Basurtoren eta haren senarra Martin de Aranguren; bestalde, Domingo de Yarza eta Elena de Aranguren senar-emazteen arteko auzia genuke²². Epaiketan Arangureneko etxea eta harekin loturik dauden ondasunak; hau da, lurrak, abereak eta errentak, noren jabetzekoak ziren eztabaidatzen da, eta ondorioz, haren erabilera noren eskuetan geratuko den. Maria Basurtok salatzen du Domingok eta Elenak ondasun horiek bidegabe atxiki eta baliatu dituztela, berari zegokion zatia kenduz. Azkenean, epaitegiak erabaki zuen, demandatuek Maria Basurtori eta bere senarrari zegokien zatia itzuli behar zizkietela, bai ondasunetan, bai fruitu eta errentetan.

Kasu honek, Getariako Aro Berriko gizarteari buruzko informazio garrantzitsua eskaintzen digu. Alde batetik, benetan azpimarragarria da Mariaren figuraren garrantzia; izan ere, emakume hau subjektu aktibo gisa agertzen da uneco. Kontuan hartu behar da auzia Maria Basurtoren ondorengotza-eskubideak medio hasten dela; ondorioz, esan eta froga daiteke emakume batzuek eduki zutela haien jabetza defendatzeko gaitasuna eta ahalmena, nahiz eta ezin den ukatu senarraren izena behin eta berriz agertzen dela dokumentuan, beti Mariaren ondoan eta ondorioz pisua edo boterea emango ziola Maria berari. Bestalde, Elena de Aranguren ere aipatu behar dugu auziaren parte gisa, betiere haren senarrarekin batera. Honek erakusten du emakumeak ondasun-jabe gisa ere aitortuak zirela, baina gehienetan "senarraren pertsona bateratu" gisa. Gainera, auzi honetan bi aldeak oinarrian emakumezkoak zirela azpimarratu behar da. Ildo beretik, emakumeen presentzia arlo juridikoan ere aipagarria da. Bi emakumeen izenak agertzen dira agirian, honek ondasunak transmititzeko prozesuetan emakumeek zuten garrantzia, nahiz eta mugatua izan, erakusten du.

Azkenik, legitimitatearen berri ere ematen digu auzi honek, izan ere, epaiketa honek erakusten du emakumeen herentzia-eskubideak legeak babesten zituela, nahiz eta ondarearen kudeaketa gizonen esku egon.


Lehen mailako testu honek oinarriak Getariako emakumeen bizitzetan garrantzia handia zuen elementu baten berri eman digu. Hitz gutxitan, emakumeek ondorengotza eskubideak defendatzeko zuten aukeraren izana mahai gainean jartzen du. Hala ere, ezin dugu ahaztu gizartea patriarkala zen aldetik, emakumeek ekintza eta kudeaketa-

²² Archivo de la Real Chancillería de Valladolid (ARCHV), REGISTRO DE EJECUTORIAS, Caja 2187, 58.

ahalmenak mugaturik egongo zirela. Kasu honetan senarren presentziaren bidez argudia daiteke emakume hauek jarduteko eremuaren muga.

6.6. Ana Lopez de Segurola eta Ana de Zarautz

Francisca de Lerchundiren kasuan zensoak aipatu diren moduan, Getariako beste hainbat emakumek ere burutu zituzten zensoak. Hau frogatzeko 1603ko irailaren 5ean egindako dokumentu bat genuke²³. Kasu honetan, Ana Lopez de Segurola da gure protagonista. Getarian jaioa, Miguel Ochoa de Atriztainen alarguna zen dokumentua burutu zenerako eta Zarautzen bizi zen. Idatzi hau, Ana Lopezen eskutik burututako zenso baten salmenta eta fundazioa genuke, Andres de Lete zarautzarraren alde. Ana Segurolak argi adierazten du bere eta bere ondorengoen izenean jarduten duela, ondorengo 9.irudian ikus daitekeen modura:




9. Irudia. Lehen mailako dokumentuaren argazkia. AHPG-GPAH NOT 2/3027,A:239r-241v.

“(...) yo Ana lopez
de segurola **viuda** de miguel Ochoa de Atriztain difunto
vezina de la villa de guetaria aunque moradora en esta
de carauz conozco por la presente que **por mi y en nombre**
de mis herederos y sucesores (...)”.

Honek erakusten du familia-ondarearen administrazioan zuen ardura zuzena eta bere izenean zein seme-alaben izenean hitz egiteko legitimitatea. Gainera, 10.argazkian ikus daitekeen dokumentu zatian ageri den ondasun-zerrendak erakusten du zein anitzak ziren emakume honen jabetzak:

²³ AHPG-GPAH NOT 2/3027,A:239r-241v



10. Irudia. Lehen mailako dokumentuaren argazkia. Ondasunen zerrenda. AHPG-GPAH NOT 2/3027,A:239r-241v.

“...el suelo de la casa llamada atriztaineshea (...) y un monte robledal (...) y viñas (...) y sobre una casa que tengo larreval (...) con dos huertas (...)”.

Ondorioz, emakumea hau ez zen ondasun xume batzuk soilik administratzen eta horien gainerako zensoak burutzen ari; baizik eta, etxe, lur eta mahasti ugari kudeatzeko ardura zuen beregain.


Dokumentura itzulik, azpimarragarria da Ana Seguiolak ondasun baliotsuak ipini zituela zenso baten errentaren berme gisa: etxe bat (Atriztaineshea), mahastiak, harizti bat, eta baita hiri bazterrean zituen etxe eta bi baratze ere. Hori guztia 13 dukat eta erdi inguruko urteko errenta ziurtatzeko. Gainera, kontuan hartuz haren senarraren abizena “Atriztan” pentsa dezakegu izatez Atriztaineshea etxea senarrarena izango zela, nahiz eta bere heriotzaren ostean gutxienez Anak administratu zuen.

Aipagarria da emakume alargun bat izatea prozesu juridiko honen elementu garrantzitsu bat dela. Jada alarguna izanik, ekonomia eta ondasunen kudeaketan autonomia handiagoa duela agerikoa da. Honek agerian uzten du emakumeek, senarra hil ondoren, familia-ondarearen babesle eta administratzaile nagusi bihurtzen zirela. Genero-ikuspegitik, kasu hau adibide garbia da emakumeek, bizitzako egoera jakin batzuetan (alarguntasuna), ekonomia-rol sendoa hartzen zutela erakusteko.


Dokumentu honek erakusten du nola lotu zitezkeen ondasun higiezinak eta ondasun produktiboak (etxeak, mahastiak, baratzeak, basoak) merkatu finantzarioarekin, kasu honetan zenso baten bidez. Zenso hauek ekonomia lokala eta familiarra uztartzen zituzten; alde batetik, herritarrek mailegu edo kapital likidua lortzen zuten, eta bestetik,

ondasunek epe luzeko errenta ziurtatzen zuten. Emakumeen bizitzari dagokionez, idatzi honek alarguntasunak zuen garrantziaren inguruan informazioa ematen digu, batez ere emakumeei autonomia emaile gisa. Kasu zehatz honetan, Ana Segurola da prozesu osoaren arduraduna, eta ez bakarrik bere izenean, baita semearen ondasunak zainduz ere. Garrantzi sozial eta ekonomikoari dagokionez, argi geratzen da Zarautz eta Getaria inguruko nekazaritza- eta herri-ekonomia lotuta zeudela zenso bidezko finantza-mekanismoekin tartean.

Ana Lopez de Seguiolaren bigarren idatzi bat ere badago, bigarren hau 1604ko irailaren 2koa²⁴ da. Kasu honetan, aurreko testutik urte betera, Ana ez dago aurreko testuinguru berdinean. Kasu honetan, 11 eta 12. argazkietan ikus daitekeen modura, gaixotasun luze bat jasan ostean bere testamentua egiteko gai ez zela ikusirik, botere bat eman zion doña Ana de Zarauzi (Arrazubiako etxeko anderea eta bere haurtzarotik laguna), haren testamentua bere izenean egiteko eta antolatzeko.



11. Irudia. Lehen mailako dokumentuaren argazkia. Gaixo dagoela adierazten da (1.zatia) AHPG-GPAH NOT 2/3028,A:225r-227r




12. Irudia. Lehen mailako dokumentuaren argazkia. Gaixo dagoela adierazten da (2.zatia) AHPG-GPAH NOT 2/3028,A:225r-227r

“(…) digo por estar constituida
en mucha hedad u miu flaca e indispueta de

²⁴ AHPG-GPAH NOT 2/3028,A:225r-227r

*mi persona respecto de la enfermedad del q
he tenido y tengo de mas de un año (...)
si bien en mi buen juicio y entendimiento
natural que dios mi señor fue servido darme
y pa hazer y ordenar mi testamento y ultima
voluntad como lo desseo(...)"*

Dokumentuak argi erakusten du lagunarteko konfiantzan oinarritutako erabakia izan zela 13. argazkiak justifikatzen duen modura. Hau ez zen soilik familia harremanen bidezko edo autoritatean oinarritutako izendapena, baizik eta bizitza osoan zehar eraikitako harreman pertsonal eta afektiboan oinarritutako erabaki eta lotura izan zen. Honela dio Ana Lopezek testuan Ana Zarauzen inguruan:



13. Irudia. Lehen mailako dokumentuaren argazkia. Laguntasuna adierazten da. AHPG-GPAH NOT 2/3028,A:225r-227r

“grande amiga mía desde su niñez”

Genero-ikuspegitik, dokumentua oso esanguratsua da. Alde batetik, Ana Lopez de Segurola emakume alarguna zen, horrek bere ondasunen gaineko autonomia handiagoa ematen zion ezkondu baten aldean. Osasunak muga handiak ezarri zizkion unean, ez zuen gizon bat aukeratu ordezkari gisa, baizik eta beste emakume bat; hots, doña Ana de Zarauz.

“(...)pa que ella (quuandole pareciere) pueda hazer y ordenar el dicho mi testamento (...) y otorgo todo mi poder tan cumplido y bastante como le tengo y de derecho (...) a la disha senora dona anna de zarauz para que pueda hazer e ordenar haga hordene por mi (...)”

Lehen mailako iturri honetatik bi alderdi nagusi azpimarratu daitezke, elkarren artean estuki lotuak. Alde batetik, emakumeen arteko konfiantza eta laguntza-sarea

nabarmetzen da. Ana Lopezek berariaz azpimarratzen du haurtzarotik eratutako adiskidetasunak funtsezko zeregina izan zuela erabaki jakina hartzeko unean. Horrek mahai gainean jartze du harreman pertsonal eta emozionalek garrantzi handia zutela gizartean eta kasu zehatz honetan emakumeen arteko elkartasunaren eraikuntzan.

Bestetik, emakumeen gaitasuna ondasun eta testamentu gaitan azpimarratzen da. Garai hartako ohiko praktikan gizonak izan ohi zuten ordezkari edo administratzaile rola, baina kasu honetan salbuespena gertatzen da: emakume batek beste baten borondate juridikoa gauzatzeko ahalmena jasotzen du. Horrek erakusten du emakumeek ere, nahiz eta neurri mugatuan izan, botere juridikoaren esparruan parte hartzeko gaitasuna zutela, bereziki familia eta konfiantzazko sareetan oinarrituta.

Azken batean, adibide honek agerian uzten du emakumeek ez zutela soilik pasiboki jarduten gizartearen egitura juridikoetan, baizik eta, egoera egokietan, subjektu aktibo gisa ere agertzen zirela, beren inguruko harreman-sareei esker.

Testamentuaren garrantziaren berri ere ematen ditu testuak, argi dago tresna juridiko hau ezinbestekoa zela ondasunen banaketa eta betebeharren antolaketa egoki bermatzeko. Horregatik, testamentua egiteko ahalmena funtsezkoa zen bizitzaren amaiera hurbil zegoenean ere, eta ohikoa zen osasun egoera larrian egonda ere azken borondatea gauzatzeko beharrezko baliabideak bermatzea. Horrela, testamentua ez zen soilik dokumentu administratibo bat, baizik eta bizitzaren antolaketa sozial eta ekonomikoaren adierazle nagusietako bat.

Horren harira, laguntasun eta konfiantza-sareen garrantzia ere nabarmena da. Kasu honetan, testamentugileak bere azken borondatea ez du familia biologikoaren esku uzten, baizik eta lagun zahar baten ardurapean jartzen du. Horrek erakusten du komunitate txikietan behintzat (hala nola Getarian) konfiantza eta elkartasuna ez zirela soilik odolezko loturetan oinarritzen, baizik eta eguneroko bizikidetzan eta elkar ezagutzan sortutako harremanetan. Ondorioz, dokumentua ez da pertsona bakar baten erabaki isolatua, baizik eta garai hartako gizartearen funtzionamenduaren eta balioen isla zuzena da: herentziak eta ondasunen antolaketa familiaren eta komunitatearen egonkortasunaren zutabeak ziren.

Azkenik, dokumentuak emakumeen rola agerian uzten du ondarearen transmisioan eta kudeaketan. Emakumeak ez ziren soilik ondasunen jabe pasiboak, baizik eta, hainbat kasutan, mandatari eta erabaki-hartzaile aktibo gisa ere agertzen ziren. Horrela,

testamentuak erakusten du emakumeek bazutela tokia botere juridikoaren eta ekonomikoaren esparruan, bereziki konfiantzan eta harreman-sare sendoetan oinarrituta.

6.7. Emakumeak zensoak fundatzen

Lehenengo kasua


1595eko abenduaren 3an²⁵, Zarautz eta Getariako bizilagun zen Maria Beltran de Goiabidek salmenta eta errenta-zentsu baten fundazioa egin zuen Marina de Aranguren alargunaren alde. Akordioaren arabera, Mariak Aguirrek, Askizuko lursailetan kokaturik zeuden etxearen erdiaren gaineko eta bere ondasun batzuen gaineko zentsua ezarri zuen. Tratu honetako partaideek idatziz utzi zuten ordainketaren inguruko informazioa. Honela, badakigu, trukean, Marinak 67 erreal ordaindu zizkiola eta hortik aurrera urteko bost erreal eta erdi emango zizkiola zentsu-errenta moduan.

Dokumentu honek bi emakumeren parte-hartze zuzena erakusten du. Alde batetik, Maria Beltran de Goiabide, ondasunen jabe eta zentsu-emailea; bestalde, Marina de Aranguren, zentsuaren erosle eta hartzailea. Garai hartan, emakumeak bazterturik egon zitezkeen ondasun- eta kontratu-kudeaketatik, baina kasu honetan emakumeek eurek sinatu eta hitzartu zuten akordioa, gizon baten babes juridiko espliziturik gabe, nahiz eta prozesua notario baten aurrean gauzatu. Gainera kontuan hartu behar da berriz ere alarguntasunak eskaintzen zuen testuinguru berezia, kasu honetan Marina behintzat alargun gisa ageri baita. Izan ere, aurretik adierazi bezala izan zitezkeen alarguntasunera iristean emakumeek askatasun handiagoa eskuratzea, bai ekonomikoan parte hartzeko bai etxeko ondasunen gaineko erabakiak hartzeko ere. Halaber, emakumeak ez ziren soilik oinordeko pasiboak; kontratu ekonomikoetan subjektu aktibo gisa ere agertzen ziren.

Ondorengo lerroetan irakurgai dagoen testu zatiak garrantzi berezia du, izan ere, pasarte honek argi erakusten du Maria Beltran de Goiabidek, emakume jabe gisa, kontratuan berak zuzenean aitortzen duela ordainketa jaso duela eta horren “*carta de pago*” edo ordain-agiria ematen duela. Ekintza ez da burutzen gizon baten bitartekaritzaren bidez; bera da subjektu juridiko eta ekonomikoa. Honela, ondoriozta daiteke, emakumeak batez ere alargunak edo ondasunen titularrak, kontratuetan agentzia eta ahotza zutela. Gainera, 14.irudian ikus daitekeen aipua bera oso esanguratsua da,

²⁵ AHPG-GPAH NOT 2/3018,A:387v-389v

dokumentuan emakume baten ahots propioa gordetzen duelako: berak aitortzen du, berak jasotzen du eta berak ematen du ordain-agiria.



14. Irudia. Lehen mailako dokumentua. AHPG-GPAH NOT 2/3018,A:387v-389v.

“(...)yo
la dicha maria veltran (e habiendolos rezibido
a mi poder) digo que la carta de pago e fin y
quito de los dichos sesenta y siete reales a vos
la dicha marina de aranguren (...)”

Lehen mailako testu honen garrantziaren inguruan hainbat ezaugarri hartu behar dira kontuan. Alde batetik, zentsuaren dokumentuak hainbat alderdi esanguratsu agerian uzten ditu, garai hartako jardun ekonomiko eta sozialaren ispilu gisa. Lehenik eta behin, zentsuak XVI. mendeko Euskal Herrian finantza-tresna ohikoak zirela erakusten du. Horrelako operazioen bidez, baliabide ekonomikoak bermatzen eta errenta egonkorrak sortzen ziren, gizartearen eguneroko jardun ekonomikoaren parte natural bihurtuta.

Bestalde, ondasun higiezinaren erabilera nabarmentzen da, etxeak eta lurrak ziurtasun juridiko eta ekonomikoaren oinarri bihurtuz. Ondare horiek ez ziren soilik ondasun materialak, baizik eta familiaren egonkortasunaren eta jarraipenaren berme ziren, belaunaldiz belaunaldi transmititzen zirenak.

Horrez gain, emakumeen parte-hartzea azpimarratzekoa da, bereziki alargunen kasuan. Marina bezalako emakumeek rola aktiboa izan zuten beren etxe eta ondarearen kudeaketan, eta horrek erakusten du emakumeak ez zirela soilik zaintza edo etxeke esparrura mugatzen, baizik eta ekonomia-lanetan ere gaitasun eta erantzukizun maila handia izan zezaketela.

Azkenik, zentsuaren formalizazioa komunitate-testuinguruan ulertu behar da. Halako kontratuak ez ziren ekintza pribatu hutsak, baizik eta tokiko eskribauen eta

herriaren jurisdikzioaren bidez gauzatzen ziren, zilegitasuna eta gardentasuna bermatuz. Horrela, zentsuak ez du soilik jarduera ekonomiko baten berri ematen, baizik eta komunitatearen antolamendu juridiko eta sozialaren funtsezko elementu bat irudikatzen du.

Ondorioz, dokumentu hau bereziki adierazgarria da generoaren eta ekonomia komunitarioaren ikuspegitik, garai hartako gizartearen egitura ekonomiko eta sozialaren hainbat alderdi argitzen baititu. Alde batetik, emakumeen presentzia eta ekintza juridikoa ikusgarri egiten ditu, erakutsiz nola emakumeek —eta bereziki alargunek— autonomia handiagoa zuten ondasun-transakzioetan parte hartzeko. Alarguntasunak, askotan, askatasun juridiko eta ekonomiko zabalagoa ematen zien, eta horri esker protagonismoa hartu zezaketen ondasunen kudeaketan, kontratuetan edo zentsuen formalizazioan.

Bestetik, dokumentuak ekonomia tradizionalaren funtzionamendua azaltzen du, erakutsiz nola lur eta etxe bezalako ondasun higiezinak finantza tresna bihurtzen ziren. Zentsuen bidez, errenta egonkorak sortzen ziren eta, aldi berean, familiaren ondarea babestu eta belaunaldiz belaunaldi transmititzen zen. Horrek gizartearen egonkortasuna eta komunitatearen kohesioa bermatzen zituen, ondasunaren erabilera ekonomiko eta soziala uztartuz.

Azken finean, kasu honek agerian uzten du emakumeak ere subjektu aktiboak izan zirela tokiko eta familia mailako ekonomia antolatzen eta sostengatzen. Haien jarduerak ez ziren salbuespen hutsak, baizik eta komunitatearen eguneroko funtzionamenduaren parte integrala, eta horrek beste ikuspegi bat eskaintzen du garai hartako emakumeen rola eta boterea ulertzeko.

Bigarren kasua

Emakumeak zensoak fundatzen ere beste kasu batzuetan egon dira Getarian. Bigarren dokumentu batean²⁶, 1595eko maiatzaren 1ean egindako agirian zentsuaren salmenta eta fundazioa jasotzen da. Maríanton de Çulaicak, Getariakoa zena eta alarguna une horretan, eta bere fidatzaileek (Martín de Agote Urezperoeta, Joanes de Urrutia eta haren emaztea Maria de Arbeztain, Aiako bizilagunak), akordio ekonomiko bat sinatu eta hitzartu zuten Mathias de Echebeste zarauztarrarekin XVI.mendearen amaieran eta

²⁶ AHPG-GPAH NOT 2/3018,A:123v-125v

XVII.mendearen hasieran. Itun horren bidez, zentsu bat ezarri zuten bi ondasunen gainean; batetik, Getariako Veaga de Medio izeneko etxea eta bere eranskinak; bestetik, Aiako Arbeztain de Yuso etxea eta hari lotutako ondarea.

Akordioaren arabera, urteko hiru dukat eta erdi ordaintzea adostu zen, aurrez jasotako diru-kopuru baten trukean. Hitzarmena notario publikoaren aurrean formalizatu zen, kontratuaren balio juridikoa eta gardentasuna bermatzeko.

Dokumentu honek garai hartako jardun ekonomikoaren eta gizarte-harremanen isla argia eskaintzen du: alde batetik, ondasun higiezinak finantza-tresna gisa erabiltzen zirela erakusten du; eta bestetik, emakume batek (kasu honetan ere alargun batek) zeresan zuzena zuela erabaki ekonomiko garrantzitsuetan, bere inguruko lagun eta konfiantza-sarearen babesarekin. Hots, dokumentu honek aurreko dokumentua oinarri burututako baieztapenekin bat egingo luke.

Marianton de Çulaica alargun gisa ageri da dokumentuan, eta kontratuaren subjektu aktibo nagusietakoa da: bere izenean zentsua saldu eta sortzeko ahalmena du. Hala ere, aurreko kasuaren kontrara, haren autonomia ez da guztiz independentea, izan ere, fidatzaile gizonezkoen eta emakumezko baten (fidatzaile baten emaztea)—Martin de Agote, Joanes de Urrutia eta Maria de Arbeztain— babes behar izan zuen. Egoera horrek argi uzten du garai hartan emakumeek, batez ere alargunek, parte har zezaketela ondarearen kudeaketan eta erabaki ekonomiko garrantzitsuetan, baina askotan beharrezkoa zela gizonezkoen berme edo babes juridikoa kontratua indarrean sartzeko.

Testuak berak honela dio:

“(...)como fiadores e primaportes pagadores de ala dicha Marianton e obligo María e hazer e otorgar esta presente carta y la jurar públicamente (...)”

Testu honek erakusten du, Mariantonen izena lehen lerroan agertzen bada ere, haren jardura juridikoa fidatzaileen sare batek sendotzen zuela eta horren bidez lortzen zela kontratuaren zilegitasuna.

Agiri hau baliotsua da hainbat arrazoiengatik. Batetik, zentsuak funtsezko tresna ekonomikoa zirela erakusten du, ondasunak hipotekatuz diru-sarrerak bermatzeko eta kapitalaren zirkulazioa errazteko. Bestetik, familia- eta auzotasun-sareen garrantzia azpimarratzen du: akordioak ez dira banakako ekintzak, baizik eta komunitate oso baten partaidetza islatzen dute. Gainera, etxe-solarrek —Veaga, Arbeztain eta antzekoek—

ondarearen, estatusaren eta identitatearen ardatz nagusi izaten jarraitzen zutela agerian uzten du. Azkenik, notarioen esku-hartzeak kontratuaren balio juridikoa, zilegitasuna eta publizitatea bermatzen zituen, tokiko administrazioaren eta justiziaren egitura finkatuz.

XVI.mende amaiera eta XVII.mende hasierako kontratu honek erakusten du zentsua kapitalaren zirkulazioan eta ekonomia lokalaren egonkortasunean oinarritzko mekanismoa zela. Aldi berean, etxe-solarrek funtzio ekonomiko ez ezik, sozial eta sinboliko nagusia ere bazuten, familiaren jarraipena eta komunitatearen kohesioa bermatuz.

Generoaren ikuspegitik, Maríanton de Çulaicaren kasuak adierazten du emakume alargunek gaitasun juridikoa izan zezaketela ekintza ekonomikoak egiteko, baina, halere, fidatzaile gizonen beharra oraindik ere ezinbestekoa zela. Hori gorabehera, emakumeak ez ziren ikusezinak: dokumentuak bera izendatzen du subjektu aktibo gisa, haren erantzukizuna eta agentzia juridikoa esplizituki jasoz.

Ondorioz, agiri honetan uztartzen dira, batetik, garai hartako finantza-praktika eta ondasunen balio sinbolikoa, eta bestetik, emakumeen parte-hartze mugatua baina erreal eta esanguratsua ekonomia eta ondarearen kudeaketan.

6.8. Tutoretzaren garrantzia

1595eko urriaren 25ean egindako agiri batean²⁷, Pedro de Elcanok, Getariako Gaxoritegi baserriko bizilagunak, bere bi mahasti eta sagasti baten gainean ezarritako hipoteka berezi bat azter daiteke; hau da, jabetza horiek berme gisa jarri zituen. Ekintza honen helburua Catalina de Eznal alargunak, Joanes de Apateguiaren emazte ohiak, bere seme-alaben tutoretza behar bezala gauzatuko zuela ziurtatzea zen. Seme-alaba horiek Joanes, Gregorio, Simon eta Ana ziren, oraindik adingabeak. Lazaro de Elcano, Zarauzko bizilaguna, fiadore gisa agertzen da akordioan. Agiriak argi uzten du Catalina arduratuko dela bai seme-alaben heziketaz bai haien ondasunen kudeaketaz. Aldi berean, jabetzen inbentarioa egiteko betebeharra zuen baita ondasunak ongi administratu ere.

Dokumentu honek ederki erakusten du nolakoa zen emakumeen egoera legearen aurrean Aro Berrian. Catalina de Eznal bere seme-alaben tutore eta familiako ondasunen administratzaile gisa aitortzen duten arren, baldintza argiak bete behar izan ziren. Alde batetik, bere atzean bi gizonezko zeuden, akordioari indar gehiago eta segurtasun gehiago emateko. Esan moduan, Pedro de Elcanok beren hainbat ondasunak berme gisa jarri behar

²⁷ AHPG-GPAH NOT 2/3018,A:353r-354r


izan zituen eta Lazaro de Elcanok fidatzaile gisa jardun zuen.. Horrek agerian uzten du emakumeei ez zitzaiela konfiantza osoa ematen ondasunen kudeaketan edo seme-alaben zaintza eta arduran, nahiz eta alargun eta ama bezala seme-alaben babesle legitimoak izan. Beraz, emakumeek aukera zuten botere eta ardura postuetan aritzeko, baina kasu honetan gizonenganako mendekotasun egituratu baten bidez eta gizonezkoen beharrezkotasuna medio.

Bestalde, agiriak argi erakusten du zein mekanismo erabiltzen ziren Gipuzkoan XVI. mendearen amaieran eta XVII.mendearen hasieran haurren eta familien ondareak babesteko. Hipoteka, fidantza eta tutoretza bezalako tresnak ez ziren soilik merkataritza edo negozioetarako erabiltzen; aldiz, eguneroko familia-bizitzaren parte ziren. Horrela, azpimarratu daiteke baserritarren eta herritarren artean (eta ez soilik eliteko partaideen artean) legezko tresnak baliatzen zirela ondasunak bermatzeko, familiaren jarraipena eta seme-alaben etorkizuna zainduz.

Laburbilduz, testuak argi uzten du Aro Berrian familiaren eta ondasunen kudeaketa emakumeen esku gera zitekeela, baina batzuetan behintzat kontrol sistema zorrotzen bidez. Catalina de Eznalek bere seme-alaben tutoretza eskuratu zuen, baina bere jarduna gizonen bidez bermatua egon behar izan zen.

6.9.Dohaintzak

1595ean²⁸, Antonio de Sevilla eta Maria Saustin de Çearra, Getariako senar-emazteak, hilobi baten erdia dohaintzan eman zioten doña Maria Lopez de Ynurriçari. Sepultura hau Getariako San Salvador parrokiako elizan zegoen (ikusi 15.irudia). Elizan hilobia izatea ez zen soilik auzi erlijiosoa, aldiz, estatus soziala eta komunitatean presentzia sinbolikoa adierazten zuen elementu bat zela kontuan hartu beharrekoa da.




15. Irudia. Lehen mailako dokumentuaren izenburua. AHPG-GPAH NOT 2/3018,A:393v-396r.


²⁸ AHPG-GPAH NOT 2/3018,A:393v-396r

*“Donacion que Antonio de Sevilla y su muger hazen a doña
maria lopez de ynurrica de media sepultura”*

16 eta 17.irudietako transkripzioan ageri da emakumeak kontratuan parte hartu ahal izateko senarraren baimena behar izan zuela:



16. Irudia. Lehen mailako dokumentua (1.zatia). AHPG-GPAH NOT 2/3018,A:393v-396r.



17. Irudia. Lehen mailako dokumentua (2.zatia). AHPG-GPAH NOT 2/3018,A:393v-396r.

*“(...) Antonio de Sevilla y Maria Saustin de Cearra
legitima muger vezinos de esta de guetaria
y la dicha Maria Saustin (para hazer y otorgar (...)
contenido esta escriptura y jurarlo dice pido
e pidio licencia marital aldicho antonio su marido
y el dicho (...) dio y concedió para el
efecto tan cumplido y bastante como la tenía y (...)
se requiere para valer (...)”.*

Testu hau esanguratsua da, emakumeen autonomia juridiko mugatuaren inguruan jarduten baitu. Izan ere, nahiz eta aipatzen den emakumeak jabetzen gaineko eskubideak eta titulartasuna eduki ezin zuen bere kabuz soilik jardun.

Bigarrenik datu garrantzitsua da dohaintza jasotzen duenaren inguruko informazioa. Izan ere, dohaintza jaso zuen pertsona emakume bat izan zen, doña Maria López de Ynurriça. Datu honek garrantzi berezia du, emakumeak ez baitziren eragiketa mota hauetan soilik subjektu pasiboak, baizik eta onuradun aktiboak ere izan zitezkeen, ondasunak eta eskubideak eskuratzeko gaitasunarekin. Halaber, dokumentuan jasota dago eskualdaketaren balioa, Maria Lopez de Ynurriñak bost dukat ordaindu baitzituen sepultura erdiaren jabetza eskuratzeko. Ordainketa horrek erakusten du ekonomia eta erlijioa elkarlotuta zeudela, materialtasunak eta espiritualtasunak elkar osatzen zutela garaiko pentsamenduan.

Aldi berean, hilobiaren zati bat emakume bati transmititu izanak erakusten du emakumeak ere memoria kolektiboaren eta hilezkortasun sozialaren parte zirela. Izan ere, Elizan lurperatua izatea garaiko gizartean estatusaren eta prestigioaren adierazle zen, eta ez zegoen edonoren eskura. Hilobi erdia edukitzeak familia baten garrantzia eta komunitatean zuen errotzea erakusten zituen, ondasun materialetatik harago doan dimentsio sinbolikoa iradokiz. Eliza bera ez zen soilik kultuaren lekua, bertan islatzen baitziren familiaren maila soziala eta komunitatearen barne-hierarkia. Horregatik, dohaintza mota honek garrantzi sozial eta sinboliko handia hartzen zuen, gizartearen egituraren eta balioen isla bihurtuta. Ondorioz, argudia daiteke, emakumeek ere lekua zutela ondarearen eta oroimenaren transmisioan, gizartearen egituraren eta sinbolismoan beren presentzia aktiboa utziz. Emakumeek, nahiz eta garaiko murrizketa juridikoen menpe egon, hala nola lizentzia maritalaren beharraren, jabetza eta eskubide erlijioso-sozialetan parte hartzeko gaitasuna zutela egiaztatzen da.

Dokumentu honek, azken batean, generoaren araberako mugak eta aukerak nola uztartzen ziren helarazten du. Bestetik, Euskal Herriko komunitateetan XVI. mendearen amaieran, emakumeen presentzia sozial eta erlijiosoaren konplexutasuna agerian geratzen da.

6.10. Dotea

Lehenengo kasua


1578ko apirilaren 6an, Zumaiako eta Getariako jurisdikzioko Santiago Arenaleko ermitan egindako agiri batek²⁹ gatazka ekonomiko baten konponketa jasotzen du. Batetik,

²⁹ AHPG-GPAH 2/3305,A:13r-14r

Gracia de Narbazta genuke, Getariako bizilaguna, alarguna eta Catalina de Arlaureta defuntuaren jaraunslea eta ama. Bestetik, Graciaren suhiari, Martin de Mendía legoke ekintza ekonomiko honen partaide gisa. Gatazka ekonomikoaren jatorria Catalina de Arlaureta seme-alabarik eduki gabe hiltzean legoke. Catalina duela bi urte ezkondu zen Mendiarekin, Askizuko Cearrechea Behekoa etxean ezarriz. Ezkontza motza izan zen, Catalina testua idatzi baino lau hilabete lehenago hil baitzen, adierazi moduan, ondorengorik utzi gabe. Testuak aipatzen digun ekintza ekonomikoan, Graciak Mendiari itzuli behar izan zion bere alabak ezkontzarako eramandako dotea. Dotea, azken finean, eta Alfontso X.a-ren *Zazpi Partidak* laneko laugarren Partidako 11. tituluko 1. legearen arabera, emakumeak ezkontza dela eta senarrari ematen dion ondasun multzo gisa definitzen da. Dohaintza modura ulertzen da, ezkontza-lotura ekonomikoki sostengatu eta sendotzeko asmoz emana (Intxausti, 2019, 72).

Testuak agerian uzten du emakumeek ezkontza-itunetan zuten protagonismoa. Dotea ez zen soilik ondasun ekonomiko bat: emakumearen familiaren eta bikotearen artean lotura juridiko eta soziala bermatzen zuen. Kasu honetan, amak, alarguna izanik, Gracia de Narbaztak, dotea itzultzeko ardura osoa hartu zuena zen, bere gaitasun juridikoa erabiliz. Testu honek, aurreko askok bezala, mahai gaineratzen du emakumeek —batez ere alargunek— nolabaiteko autonomia eta boterea izan zezaketen ondasunen kudeaketan. Aldi berean, testuak azaltzen du ondorengorik gabe ezkontza bat desagiteak izan zezakeen ondorio ekonomikoa: seme-alaba ezean, dotea itzultzeko aukera zegoen eta horrek agerian uzten du garai hartako gizartean ugalkortasunak eta etxearen jarraipenak zuten garrantzi nagusia.

Hona hemen, 18.irudian, testu originala:



18. Irudia. Lehen mailako dokumentuaren argazkia. AHPG-GPAH 2/3305,A:13r-14r.

“(…)fue disuelto el dicho matrimonio y casamiento por

fin y muerte de la dicha catalina de Arlauretaren fallecio sin dejar

hijos (...)

*sesenta ducados y todas las demas cosas que llevo en dote a la dicha casa, y ansi
mismo la dicha gracia denanbasta como (...)*

*la dicha su hija la seas la mitad de las ganancias que durante
el dicho matrimonio (...) ubo y adquirieron(...) ”*

Generoari loturiko irakurketaz harago, agiri honek balio historiko handia du. Alde batetik, argi erakusten du XVI. mendeko Euskal Herriko zuzenbide zibil eta ohiturazko sistemek nola funtzionatzen zuten. Bestetik, dokumentuak etxeen eta ondasun higiezin —mahastiak, baserriak, sagastiak, etxeak— inguruko lotura ekonomiko eta soziala agerian uzten du. Azkenik, sinadura tokiak —ermita batek— eremu juridikoaz gain, gizartearen dimentsio komunitario eta erlijiosoa ere azpimarratzen du. Agiri hau adibide argia da emakumeek, garai hartako mugen barruan ere, ondarearen transmisioan eta familia gatazken konponketan izan zezaketen protagonismoaz. Gracia de Narbazta ez da pasiboa: bere alabaren ordezkari gisa ageri da, ondasunen kudeatzaile eta bitartekari gisa.

Bigarren kasua

Dotearen inguruko artxiboak ugariak dira. Bigarren hau, 1602koa da³⁰. Kasu honetan, Getarian burututako, zor agiri, obligazio eta fidantza dokumentu bat da. Alde batetik, Catalina de Sagastizabal eta Juan Lopez de Zarauz senar-emazteak genituzke; bestetik, lehenaren aita, Francisco de Sagastizabal, Bruselan bizi zena. Helburua Catalinak ezkontzan ekarritako dotea eta arreoak bermatzea, eta ezkontzak ondorengorik gabe hautsiz gero, ondasun horiek (eta elkarrekin eskuratutako ondasunak) itzultzea zen.

Juridikoki, dokumentuan hainbat pertsona ageri dira, bakoitzak bere zeregina eta autoritatea argi adierazita. Domingo de Elizalde, erregearen morroia eta Tolosako bizilaguna, Franciscoren ordezkari gisa jarduten du, haren interesak defendatuz eta akordioa gauzatzeko beharrezko boterea bere gain hartuz. Martin de Armendia, lizentziatua eta prokuradore gisa aritua, ekintzaren kudeaketa juridikoaren arduraduna da, eta bere figura funtsezkoa da prozeduraren zilegitasuna eta formaltasuna bermatzeko.

³⁰ AHPG-GPAH NOT 2/3026,A:29v-37r

Azkenik, Martin de Elcano, erregearen idazkaria, fede-emaile gisa azaltzen da, eta haren sinadurak dokumentuaren izaera ofiziala eta juridiko-balioa sendotzen ditu.

Hiru pertsona horien presentziak notariotza-prozesuen seriotasuna eta administrazioaren egitura hierarkikoaren berri ematen du, baita garai hartako kontratuen fidagarritasuna bermatzeko behar zen formalismo juridikoa ere. Aipagarria da hiru gizon direla, hortaz, dokumentuaren protagonista garrantzitsuak.

Dokumentu honek Catalina de Sagastizabal babestea du helburu, ezkontzak huts egitekotan edo ondorengorik gabe geratu ezker, bere dotea berreskuratzeko eskubidea bermatuz. Aldi berean, agirian agerian geratzen dira Gipuzkoako familien harreman zabalak eta izaera internazionala, izan ere, Franciscok Bruselan zuen bizilekua eta Monarkia hispaniarraren orbitan kokatzen du familia osoa.

Generoaren ikuspegitik, dokumentuak garai hartako mendekotasun juridikoaren logika erakusten du. Catalina ezin zen bere kabuz sinatzaile izan, senarraren baimena behar zuelako; horrek argi uzten du emakume ezkongabeek ez zutela autonomia juridikorik. Hala ere, dotea emakumearen eskubide propio gisa ulertzen zen, eta legeak berariaz bermatzen zuen ezkontza apurtuz gero dote hori berreskuratzeko eskubidea zuela. Agiriak Gipuzkoako garai hartako gizartearen eta zuzenbidearen funtzionamendua ere islatzen du. Ezkontza-kontratua tresna juridiko eta ekonomiko funtsezkoa zen, familiek ondasunak eta boterea orekatzen zituzten bitartean. Era berean, Martin de Armendia prokuradorearen presentziak notariotza eta konfiantza sareen garrantzia azpimarratzen du, kontratuaren zilegitasuna eta segurtasun ekonomikoa bermatzeko. Dotea babesteak, azken finean, emakumearen eta haren familiaren interesak sendotzen zituen eta ondarearen jarraipena ziurtatzen zuen.

Ondorio gisa, dokumentuak erakusten du ezkontza ez zela soilik lotura afektiboa, baizik eta aliantza juridiko eta ekonomiko konplexua. Generoaren ikuspegitik, emakumea mendekoa zen legalki, baina bere ondasunak legez babestuak zeuden eta bere figura ez zen ezkutuan geratzen. Azken batean, dokumentu honek generoaren, ekonomiaren eta zuzenbidearen arteko uztarketa bikaina eskaintzen du, non emakumea menpekota izan arren, ikusgai eta babestua agertzen den testuinguru juridiko eta sozial konplexu batean.

6.11. Herentzia eta irabazpideko ondasunak

1603ko otsailaren 14an Zarautzen egindako kontratu eta adostasun ³¹ hau don Julian de Honsayn (Zarautzeko benefiziaria) eta Beltran de Unçeta Vassurto (Getariako idazkaria eta Maria Lopez de Ynurriaren alarguna³²) artean sinatu zen. Helburua hildako emaztearen ondasun eta dote kontuak ixtea zen, baita haren azken borondatea betetzea ere.


*“Transaccion entre don julian de onsayn alcacea de dola maria lopez de ynurrira
y bertran de ureta su marido (...) don julian de honsain beneficiado (...)
della como albacea y ecentor del testamento
de doña maria lopez de ynurrita difunta muger
legitima fue de beltram de unceta vassurto (...)”*

Aldi berean, Maria Lopezen heriotza dataren berri ematen digu eta garai hartan are garrantzitsuagoa izan zitekeena; hau da, Maria seme-alabarik eduki gabe hil zela adierazten du testuak, 1599an. Azpimarratutakoa ondorengo 19 eta 20.irudietan ikus daiteke.


*“(...) y la dicha doña maria lopez de
ynurrita hera fallecida de esta presente vida el año pasado
(...)sin haver dejado ny tenido
del dicho beltran su marido hijo ni hija alguno y se
havia disuelto el dicho matrimonio sin ellos.”*

³¹ AHPG-GPAH NOT 2/3027,A:18r-22r

³² Senar-emazte honen kasua hilobiaren donazioaren kasuan ere aztertu da.



19. Irudia. Lehen mailako dokumentuaren argazkia (1.zatia). AHPG-GPAH NOT 2/3027,A:18r-22r



20. Irudia. Lehen mailako dokumentuaren argazkia (2.zatia). AHPG-GPAH NOT 2/3027,A:18r-22r

Dokumentu hau Euskal Herriko Aro Berriko ezkontza-zirkuitu juridiko eta sozialaren parte da, eta garai hartako familia- eta ondare-harremanak ulertzeko lekukotasun bikaina eskaintzen du. Ezkontza-kontratuaren bidez eta dotearen bitartez, emazteak bere ekarpen ekonomikoa egiten zuen eta hura legearen babespean zegoen. Horri esker, emakumeen ekarpen ekonomikoa ez zen galtzen ezkontza amaitzean, baizik eta berreskuratzeko eta babesteko mekanismo juridiko zehatzak existitzen ziren.

Generoaren ikuspegitik, Maria López de Ynurriça ez da senarraren osagarri pasibogisa ageri, baizik eta subjektu ekonomiko aktibo moduan. Bere ondasunen artean, diru kopuruak eta altzari pertsonalak aipatzen dira: (...) *tres ducados en dineros e quatro camas mebas en plidas (...)*". Horrek erakusten du bere ekarpena dokumentatua eta aitortua zegoela. Testamentuak eta albazeen jarduerak bermatzen zuten emakumearen ondasunek ez zutela desagertzen ezkontza amaitzean, baizik eta berari edo bere familiari itzultzen zitzaizkiola. Senarrak, Beltran de Unçetak, albazearekin negoziatu behar izateak argi uzten du ez zuela ondasunen gaineko jabetza osoa, baizik eta administrazio rola bakarrik. Seme-alabarik ezean, Maria Lopezen ondarearen zati bat bere jatorrizko leinura itzuli zen, emakumeen ondasunak familia-lerroan mantentzeko ohiko praktikari jarraiki.

Dokumentu honek balio sozial handia du, izan ere, XVI. eta XVII. mendeetako euskal gizartearen funtzionamendua islatzen du. Emazteek, nahiz eta ezkontzaren barruan egon, izaera juridiko propioa zuten eta notariotzaren bidez beren ondasunen gaineko boterea mantentzen zuten. Zarautz eta Getariaren arteko lotura ekonomiko eta juridikoak

ere agerian geratzen dira, bi herri horietako idazkari eta notarioen lana funtsezkoa izan baitzen emakumeen eskubideak bermatzeko.

6.12. Familia arteko liskarrak


Familiak sentimendu kohesionatzailea sortzen zuela ukaezina da. Hala ere, idealizaziotik urrun, botere-harremanen baitan ulertu beharra dago familia bera ere, ondorioz, barne-gatazkak sortzen ziren. Gatazka hauen arrazoiak anitzak izan zitezkeen; tartean, herentzia, tutoretza edo dotea ziren eztabaida gai nagusiak (Azpiazu, 1995, 40). Familiaren baitan sortzen ziren harreman hauen berri edukitzeko artxiboek ere lagun dezakete. Ondorengo orrietan familiaren baitan sortu ziren bi kasu aztertuko dira. Lehen a bi ahizpen artean eta ostean anai-arreben artean.

Bi ahizpa alargun:

1604ko maiatzaren 17an Zarautzen jasotako agiri batek, ³³bi ahizpa ditu protagonista. Batetik, Maria de Mendoza, Joanes de Arrazubia “Changu” ezagunaren alarguna eta Zarauzko bizilaguna; bestetik, Ana de Mendoza, Domingo de Azcoitiaren alarguna, Zarautzen eta Getarian bizi zena. Bi emakumeek beren senarrak hil ondoren geratutako zor eta kontuen inguruan diraute dokumentuan, bereziki Maria eta Joanesek Ana eta Domingoren alde eta Santa Maria La Rea elizako kabildoaren alde ezarri zituzten zentsuetako etekinekin lotuta zeuden. Zentsuak garai hartako maileguak ziren, ondasun zehatz batzuekin bermatzen zirenak, eta urteroko errenta edo interesez ordaindu behar zirenak. Kasu honetan, Ana de Mendozak, bere seme-alaba adingabeen legezko administratzaile gisa, ordainketa batzuk egin zituen. Dokumentu honek, beraz, kontuak ixteko eta zorren ardura nola banatzen zen argitzeko balio izan zuen, bai eta bi alargunen artean zintzotasunez hitzartutakoa jaso eta lege-indarra emateko ere.

Honela dio 21.irudian ikus daitekeen testu originalak:

³³ AHPG-GPAH NOT 2/3028,A:125r-130r



21. Irudia. Lehen mailako dokumentuaren argazkia. AHPG-GPAH NOT 2/3028,A:125r-130r.

“(...) Maria de

*Mendoça viuda muger fue de Joanes de Arraçubia (alias Changu)
difunto y dela otra Ana de Mendora hermana de la dicha Maria
viuda tambien muger que fue de Domingo de Azcoitia difunto
vezina dela villa de guetaria de esta de zarautz porsí e como madre y legitima
administradora de [Domingo y Marina] de Azcoitia (...)”*

Generoaren ikuspegitik, agirian emakumeek duten protagonismo zuzena nabarmentzekoa da. Maria eta Ana ez dira ageri gizon baten izenean edo haren atzetik, baizik eta beren kabuz, betiere alargun gisa ageri dira. Aldi berean, Anaren kasuan, seme-alaben ondasunen kudeatzaile gisa ere nabarmentzen da. Alarguntasunak ate juridiko eta sozial bat ireki zien aurretik aztertu diren hainbat kasuetan bezala. Horrek ekonomia harremanetan parte hartzea, zorren ordainketa negoziatzea eta kontuak ematea ahalbidetu zien. Emakumeak subjektu aktibo gisa agertzen dira, ondasunen eta zorren arduradun zuzen gisa. Ondorioz, emakume hauek ez zuten bigarren mailako paper bat soilik bete.

Hala eta guztiz ere, testuak patriarkatuaren mugak ere agerian uzten ditu. Izan ere, emakumeek jardun ahal izatea baldintzatua zegoen. Kasu honetan ezkontideak hil zirenean, euren izenean jarduteko aukera zabaldu zitzairen bi emakume hauei. Hau da, emakumeek autonomia handiagoa lortzen zuten gizona falta zenean, baina baldintza horren mende. Hori dela eta, kasu honetan aztergai dagoen dokumentuek bezalakoei erakusten dute legeak emakumeei aitortzen ziela ondasunen gaineko erantzukizuna; gainera, botere horren izaera baldintzatua zela, gizartearen egitura patriarkalaren baitan.


Ondorioz, agiri hau oso esanguratsua da emakumeen ahotsa eta presentzia ulertzeko, batez ere alargun gisa. Maria eta Ana de Mendozaren bidez ikusten da nola emakumeek, egoera jakin batzuetan, ondasunak kudeatzeko eta instituzioekin zuzenean negoziatzeko gaitasuna izan zezaketen.

Anai-arrebak

Bigarren kasu hau, 1605ekoa da. Bertan, Francisco de Zarauz Avendañu eta Gracia de Zarauz Avendañu anai-arreben arteko, hitzarmen eta transakzio bat azter daiteke³⁴.

Eztabaida nagusia Getariako Cioçaga etxearen banaketaren inguruan sortu zen, baina auzian beste ondasun batzuk ere izan ziren jokoan: aitag, Domingo de Zarauz Avendañuk, utzitakoak eta amak, doña Inglesa de Seguroiak, ekarritako dotea. Garai hartan, ordea, seme-alabak adingabeak ziren, 22. irudian ikus daitekeen modura. Horregatik, Getariako alkateak baimen judiziala eman eta bi kuradore izendatu zituen: Juan Ruiz de Urezperoeta, Franciscoren aitaginarreba, eta Jorge de Elcano, Graciaren senarra. Bi horiek izan ziren anai-arreben ordezkari juridikoak, eta haien eginkizuna ondarearen kudeaketa egokia bermatzea eta, aldi berean, auzi luze eta garestiak saihestea izan zen. Horrela, espedienteak garai hartako praktika juridiko eta familiarra islatzen du, non tutoretza eta kuradoretza funtsezko tresnak ziren ondarearen babesa eta familia-oreka mantentzeko.

³⁴ AHPG-GPAH NOT 2/3029,A:101r-120v



22. Irudia. Lehen mailako dokumentuaren argazkia. Adingabeak dira haurrak. AHPG-GPAH NOT 2/3029,A:101r-120v.

“(...) Francisca

y Gracia de Çarauz hermanos hijos

legitimos de Domingo de çarauz y

Abendanu difunto e Inglesa de

Segurota muger legitima [dueña fue]

de la cassa de ciocaga que esta esta en

jurisdiccion de la dicha villa de guetaria

y dixieron que como hera notorio

ellos ambos hermanos y cada uno

eran menores (...)”

Kasu honek oso modu argian erakusten du XVII. mendeko Euskal Herrian emakumeek zuten egoera juridikoa eta haren mugak. Gracia de Zarauz oinordeko legitimoa zen, baina ezin zuen zuzenean jardun ez auzietan, ezta ondare-transakzioetan ere. Bere ordezkari legala senarra izan zen, Jorge de Elcano eta haren bidez gauzatu behar izan zituen bere eskubideak eta erabakiak. Horrek agerian uzten du emakumeen autonomia mugatua zela ondasunen kudeaketan, nahiz eta ondasun horiek beraien familiatik jasoak izan. Emakumeek, nahiz eta herentzian parte izan, ezin zuten bakarrik

jardun esfera publikoan; beti behar zuten gizon baten —senarra edo tutorea— babesa. Hala ere, Gracia dokumentuan izenez eta parte gisa agertzen da, eta horrek erakusten du, tutoretzapean egon arren, emakumeak ez zirela guztiz ikusezin bihurtzen; izen juridikoa eta presentzia soziala mantentzen zuten, eta, neurri batean, beren ahotsa ere bazuten familia-ondarearen kudeaketan. Ondorioz, Graciaren presentzia agirian ez da sinbolikoa, baizik eta esanguratsua da, bere izena eta parte-hartzea esplizituki jasota baitaude.

Dokumentuak garrantzi handia du Gipuzkoako garai hartako praktika juridiko eta familiarra ulertzeko. Herentziak eta doteak aberastasunaren transmisioaren eta gatazka ekonomikoen ardatz nagusiak ziren, eta adingabeak edo emakume ezkonduak kuradoreen bidez ordezkatzeko ohiko mekanismo juridikoa zen. Horri esker, familiaren ondasunak legezko babesarekin defendatzen ziren. Getariako alkatearen esku-hartzeak erakusten du botere lokalak funtsezko eginkizuna zuela akordio pribatuak legitimatzeko, eta aldi berean, auzien ordezkariak egitea gizarteak adostasuna eta oreka bilatzen zituela erakusten du, gatazka luze eta garestiak saihestuz.

Francisco eta Gracia de Zarauz Avendañuren arteko hitzarmena adibide argia da nola kudeatzen ziren ondareak XVII. mendearen hasierako Gipuzkoan. Ekonomiaren ikuspegitik, herentzia eta dotea ziren leinuen sendotze-bide nagusiak; generoaren ikuspegitik, emakume ezkonduen mendekotasun juridikoa berresten da, nahiz eta ikusgarritasun eta partaidetza maila bat mantentzen zuten. Gizarte mailan, kuradoreen, aitaginarreben eta senarren rola funtsezkoa zen, baita justizia lokalaren eginkizuna ere, akordioei zilegitasuna emateko eta familia-ondarearen egonkortasuna bermatzeko.

Azken batean, kasu honek erakusten du nola uztartzen ziren familia, ondarea eta botere lokala, eta nola bilatzen zen oreka gatazka eta negoziazioaren artean. Generoaren ikuspegitik, Graciaren mendekotasun bikoitza —emakume izateagatik eta, gainera, adingabea zelako— oso agerikoa da. Ikuspegi juridikotik, berriz, dokumentuak argi erakusten du herentzietako eta doteetako akordioak ez zirela nagusitasun-adina betetzeko itxaroten; lehenago konpontzen ziren, familia-ondarearen jarraipena eta egonkortasuna bermatzeko.

7. Ondorioak

Getariako kasuaren azterketaren bitartez, Euskal Herriko Aro Berriko emakumeen inguruko ikuspegi integral eta konplexuago bat eskaintzen da. XVI. eta XVII. mendeetako euskal kostaldean ekonomia, generoa eta familia estu lotuta zeuden, eta testuinguru horretan emakumeek, mugapen sozial eta juridikoak izan arren, ezinbesteko eginkizuna bete zuten gizartearen funtzionamenduan eta garapenean. Ikerketa honek, beraz, emakumeen presentzia eta ekarpena ikusgarri egiteaz gain, historiaren irakurketa tradizionalak berrikusteko eta oreka handiagoa eskaintzeko aukera ematen du.

Emakumeak kontzeptu gisa lan honetan bertan erabili den arren, kontuan hartu behar da adibide anitzek mahai gaineratzen duten modura, emakumeek ez zutela talde homogeneo bat osatzen, aldiz, egoera juridiko eta sozialaren arabera; hots, testuinguruaren, familiaren, aberastasunen eta ondasunen arabera egoera desberdinetan egongo zirela eta ondorioz, botere, aukera eta bide desberdinak edukiko zituztela haien bizitzetan zehar. Hori kontuan hartuz, emakume batek haren bizitzan aurrera egin ahala, eta hortaz testuingurua bera aldatu ahala haren egoera eta aukerak ere aldatzen joaten ziren. Autonomia gehien zuten emakumeen artean alargunak aipatzea beharrezkoa da. Alargunek botere juridiko eta ekonomiko handiagoa baitzuten eta ondasunen administrazioan eta negozioetan parte hartzen baitzuten. Ekintza anitz hauen artean, zentsuak, testamentuak eta dotearen inguruko hainbat eta hainbat dokumentu genituzke.

Hala ere bazeuden emakume guztiei eragiten zieten elementuak. Tartean, gizarte patriarkal honen ezaugarri garrantzitsuenetako bat emakumeen bizitzetan lizentzia maritalaren beharrezkotasuna izango da. Haren mugak eta praktika erreala aztertzerakoan legeak emakumearen jardura senarraren baimenaren menpe jartzen zuela ukaezina da. Hala ere, praktikan, itsas gizonak urte luzez kanpo zeudenez, emakumeek autonomia handiagoa bereganatzen zuten eta horretarako lizentzia maritalak beharrezkoak ziren, familiako ekonomian eta ondasunen kudeaketarako. Horrek erakusten du mendekotasun formala eta askatasun praktikoa batera existitzen zirela; nahiz eta kontraesankorra izan. Izan ere, gizonen presentzia (senarrak, fidatzaileak, kuradoreak) beharrezkoa zen eragiketak zilegiztatzeko, nahiz eta emakumeak izen-abizenekin agertu. Honela, emakumeak ikusgarriak ziren dokumentuetan eta rol ekonomiko nabarmenak zituzten, baina ezin zuten guztiz autonomikoki jardun.

Mugak nabarmenak ziren garai honetan; hala ere, emakumeak gizarteko subjektu aktibo gisa ageri dira aztertutako dokumentuetan, salerosketetan, mailegu edo zentsuetan

eta auzitegietan parte hartu zutelarik. Haien presentzia tokiko ekonomian baita komunitateko eguneroko bizitzan ere funtsezkoa izan zen.. Zentsu eta akordioen bidez, baliabide ekonomikoak mugitu eta gatazkak kontrolatzeko mekanismoak baliatu zituzten. Adierazi moduan, emakumeen testuinguruak haien izana guztiz baldintzatu zuela baieztaturik, emakumeen identitatea askotakoa izan zitekeela mahai gaineratzen da. Bertan familiak eta ahaidetasun sareen garrantzia ukaezina delarik, emakumeen izana askotan, “*esposa de*”, “*viuda de*” edo “*madre de*” gisako izendapenetan oinarritzen zen. Familia-sareak emakumeen babes eta botere-iturria ziren. Bertan, etxeak eta doteak familiaren eta komunitatearen ondarearen muina ziren aldi berean, gatazka juridiko eta ekonomiko gehienen oinarri ziren. Patriarkatuaren logikan bizi arren, emakumeek beren espazio propioak eraiki zituzten. Ondorioz, Getariako eta inguruko emakumeak ez ziren emazteak edo neskazarrak izateaz gain, beren nortasun eta ahalmen propioak zituzten subjektuak.

8. Bibliografía

- Aguinagalde, F. B. de. (2017). *El archivo personal de Juan Sebastián de Elcano (1487–1526), marino de Getaria*. En M. J. Parodi Álvarez (Coord.), *In medio orbe (II): Personajes y avatares de la I vuelta al mundo* (orr. 65–93). Junta de Andalucía.
- Alkorta, I. (2024). La condición jurídica de la mujer en el Derecho histórico privado de Vasconia: estudio de las fuentes y propuesta de líneas de investigación. *Iura Vasconiae: Revista de Derecho histórico y autonómico de Vasconia*, 21, 17–93.
- Aragón, A. (2008). Transformaciones económicas en el sector costero guipuzcoano central durante el siglo XVII. *Manuscripts: Revista d'història moderna*, 26, 191–236.
- Aragón, A. (2011). Familia, mujer y conflictividad en Guipúzcoa durante la Edad Moderna. *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País*, 67, 43–86.
- Aragón, A. (2012). Mujeres y conflictividad familiar en Guipúzcoa durante el Antiguo Régimen. *Obradoiro de Historia Moderna*, 21, 29–54.
- Aragón, A. (2014). “En una casa y mantenimiento”. Estrategias familiares en Guipúzcoa durante la Edad Moderna a través del caso de la familia Zarauz. En F. Chacón eta C. Gómez (Coords.), *Familias, recursos humanos y vida material* (orr. 401–425). Universidad de Murcia.
- Armesto, M. F. (2022). La influencia de la misoginia escolástica en la legislación castellana de Antiguo Régimen. *Erebea. Revista de Humanidades y Ciencias Sociales*, 12(2), 193–224.
- Ayerbe, M. R. (2011). Memorial del Doctor Don Rafael de Azcona y Góngora, elevado a Reina, sobre la mejora de hijas en 3º y 5º por vía de dote aprobada por Gipuzkoa en 1659. *Boletín de estudios históricos sobre San Sebastián*, 44, 429–465.
- Ayerbe, M. R. (2022). De la libertad de elección de heredera al mayorazgo masculino. Guipúzcoa (S. XV–XVIII). *Donostia eta Gipuzkoari buruzko azterketa historikoen buletina*, 55, 145–259.

- Azpiazu, J. A. (1995). *Mujeres vascas: sumisión y poder*. Haranburu.
- Basurto, R., eta Montoya, R. A. (2018). *Auge y ocaso de una dinastía de emprendedores, navegantes y escribanos vascos a caballo entre el viejo y el nuevo mundo: los Basurto de Guetaria*. Universidad Autónoma de San Luis Potosí.
- Castrillo, J. (2020). *Las mujeres vascas durante la Baja Edad Media. Vida familiar, capacidad jurídica, roles sociales y trabajo*. Editorial Sílex.
- Correa, M. J., eta Espigado, G. (2003). La historia de las mujeres en España. *Investigación en la escuela*, 50, 21–30.
- de las Heras Santos, J. L. (2014). Casas de recogidas y galeras de mujeres en la Edad Moderna: Moralidad, asistencia y represión contra las mujeres en los siglos XVII y XVIII. En Ó. Fernández Álvarez (Ed.), *Mujeres en riesgo de exclusión social y violencia de género* (orr. 417–427). Universidad de León.
- Echeberria, I. (2014). Breve aproximación a la autoridad femenina en el S. XVIII. El extraño caso de Gregoria de Urbina. *Sancho el Sabio: Revista de cultura e investigación vasca*, 37, 33–52.
- Fraile, D. (2004). Mujer y cultura: La educación de las mujeres en la Edad Moderna. *Foro de Educación*, 4, 74–88.
- Galdós, A. (2021). Más allá del hogar: Ámbitos de actuación de la mujer guipuzcoana en el siglo XVIII. En M. Á. Domínguez Rubio eta C. Rilova Jericó (Eds.), *Ciclo de Conferencias Tercio Viejo de Sicilia: San Sebastián 1719–2019* (orr. 67–90).
- González, E. (2017). *Gipuzkoa en la primera globalización (ss. XVI-XVIII)* (orr. 269–363). En Á. Aragón Ruano eta I. Echeberria Ayllón (Coords.), *Síntesis de la historia de Gipuzkoa*. Diputación Foral de Gipuzkoa.
- Intxaustegi, N. J. (2019). La mujer y los recursos económicos de los conventos en Bilbao (siglos XVII y XVIII). *Travesía*, 21(2), 63–82.
- Intxaustegi, N. J. (2024). La mujer y el trabajo: Comadronas y parteras vascas (siglos XVI–XVIII). En E. García Gil eta T. González López (Eds.), *Mujeres, negocios y finanzas. Un enfoque histórico a través de la educación, la*

- economía y la legislación (siglos XVI–XIX)* (orr. 24–25). Universidad de Málaga.
- Larrañaga, M. M. (2016). *Serorak Euskal Herrian: Ikuspegiak, hastapenetatik desagerrarazterarte (Antzinate Berantiarra – XVIII. mendea)* [Tesis doctoral, Euskal Herriko Unibertsitatea].
- López-Cordón, M. V. (1994). La conceptualización de las mujeres en el Antiguo Régimen: Los arquetipos sexistas. *Manuscripts: Revista d'història moderna*, 12, 79–107.
- Madariaga, J. (2001). Expresiones culturales y mentales en la Euskal Herria de los siglos XVI al XIX. *Eusko Ikaskuntzen Nazioarteko Aldizkaria*, 46(1), 203–323.
- Marchant, A. C., eta Barrena, A. (2023). “Sepan cuantos esta carta de poder vieren cómo yo...”: La autorización para realizar funciones en nombre ajeno en la Corona castellana durante el reinado de Carlos I. *Doc. instrum.*, 21, 127–144.
- Millán de Silva, P. (2016). La posición social de la mujer guipuzcoana a través de sus actos jurídicos patrimoniales en la Edad Moderna. En M. García (Coord.), *Familia, cultura material y formas de poder en la España moderna: III Encuentro de jóvenes investigadores en Historia Moderna* (orr. 219–228). Universidad de Valladolid – Fundación Española de Historia Moderna.
- Nausia, A. (2006). Las viudas y las segundas nupcias en la Europa moderna: últimas aportaciones. *Memoria y Civilización*, 9, 233–260.
- Nausia, A. (2013). *Talis mater, talis filia*: las malas madres en los siglos XVI y XVII. *Memoria y Civilización*, 16, 27–54.
- Nausia, A. (2024). Sobrevivir en la ciudad: La conflictividad laboral de las viudas navarras en la primera Edad Moderna. En E. García Gil eta T. González López (Eds.), *Mujeres, negocios y finanzas: Un enfoque histórico a través de la educación, la economía y la legislación (siglos XVI–XIX)* (orr. 26–28). UMA Editorial.
- Oliveri, O. (2006). Mujer, casa y familia en el estamento hidalgo guipuzcoano del siglo XVI. *Arenal: Revista de historia de las mujeres*, 13, 39–59.

- Ortego, M. A. (2003). *Familia y matrimonio en la España del siglo XVIII: Ordenamiento jurídico y situación real de las mujeres a través de la documentación notarial*. Universidad Complutense de Madrid.
- Otero-González, U. (2019). Historia, mujeres y género: De una historia sin género a una historia de género. *Historiografías: revista de historia y teoría*, 17, 27–50.
- Reguera, I. (2013). Malos tratos y violencia conyugal en la sociedad vasca de la Edad Moderna. *Memoria y Civilización*, 16, 137–174.
- Rodríguez, A. (1996). *La familia en la Edad Moderna*. Arco Libros.
- Roquero, C. (2019). *Historia de las mujeres en Euskal Herria: Del viejo reino al Antiguo Régimen*. Txalaparta.

9. Lehen mailako iturriak

Archivo Histórico Provincial de Gipuzkoa-Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoa:

2/3000, A:29tr-30v

2/3305, A:13r-14r

NOT 2/3008, A:51r-52r

NOT 2/3008, A:69r-70r

NOT 2/3018, A:63v-67r

NOT 2/3018, A:67r-69r

NOT 2/3018, A:74v-75r

NOT 2/3018, A:123v-125v

NOT 2/3018, A:254v-259v

NOT 2/3018, A:260r-283r

NOT 2/3018, A:353r-354r

NOT 2/3018, A:387v-389v

NOT 2/3018, A:393v-396r

NOT 2/3026, A:3v-5v

NOT 2/3026, A:29v-37r

NOT 2/3026, A:191v-193v

NOT 2/3027, A:16r-17r

NOT 2/3027, A:17r-18r

NOT 2/3027, A:18r-22r

NOT 2/3027, A:162v-164v

NOT 2/3027, A:168r-169v

NOT 2/3027, A:239r-241v

NOT 2/3027, A:241v-243r

NOT 2/3027, A:262r-263v

NOT 2/3027, A:263v-265r

NOT 2/3028, A:125r-130r

NOT 2/3028, A:225r-227r

NOT 2/3029, A:101r-120v

Archivo de la Real Chancillería de Valladolid:

(1615-07-10). *Ejecutoria del pleito litigado por Martín de Aranguren y su mujer, María Basurto, vecinos de Guetaria (Guipúzcoa), con Domingo de Yarza y Elena de Aranguren, su mujer, vecinos de Usurbil.* REGISTRO DE EJECUTORIAS, CAJA 2187, 58. Código de referencia: ES.47186.ARCHV//REGISTRO DE EJECUTORIAS, CAJA 2187, 58.

(1585-02-05). *Ejecutoria del pleito litigado por Juan Ortiz de Zarauz y su mujer Inglesa López de Zarauz, vecinos de Guetaria (Guipúzcoa), con Domingo de Arpa y Bartolomé de Aguirre, vecinos de la dicha villa, sobre la posesión de ciertas piezas de oro, plata y monedas que se habían cedido en depósito y guarda y no se querían devolver.* REGISTRO DE EJECUTORIAS, CAJA 1526, 44. Código de referencia: ES.47186.ARCHV//REGISTRO DE EJECUTORIAS, CAJA 1526, 44.

